



# ttipi-ttapa

TTIPI-TTAPA

2014ko urriaren 2a | XXXIV. urtea | 623. zenbakia

www.ttipi.net



Charles OLLIVON

Senpertarra  
Frantziako  
selekzioan  
sartzeko atean

→ 44

## Herriko bestak

Aniz eta Gartzain

### BORTZIRIAK → 25

Hizkera aztertze-  
boluntarioen bila

### ZUBIETA → 28

Eñaut Elorrieta kantari  
Euskararen Egunean

### LEITZA → 33

Aurrera Eguna urriaren  
4an ospatuko dute

### BAZTAN → 39

Pirinioetako behi onenak  
saritu dituzte

Martin SARRATEA eta M<sup>a</sup> Paz AZKARRAGA | ELA eritasunari buruz

## Elkartasun katea Baztanera ailegatu da

Martin eta M<sup>a</sup> Pazek 39 urteko semea galdu zuten duela 2 urte ELAren ondorioz. Orain, eritasuna ezagutarazteko eta sendagaien ikerkuntza-

rako diru-bilketa kanpaina ari dira egiten mundu osoan. Irailaren 20an Amaiurko Sokatira Taldea busti zen ELAren alde. **ERREPORTAJEA → 4-5**



Urriak 10 eta 11

## Longboard-jautsiera Ibardinen

'Kontrabandisten Besta' egitarauaren barnean, egitarau eklektikoa antolatu dute Ibardinen eta Beran urriko bigarren astebururako. Longboard-jautsiera txapelketa Ibardinen eta ikastaroa Beran, salgai-hondarren feria bentetan, 'Kontrabandisten Igoera' desafioa mendian gora, haurrentako joku-parkea, ibilaldi kulturalak, DJak, zozketak...  
→ 20



Heleni ZABALETA | Leitza

### ELKARRIZKETA → 3

«Begiz jota dute Leitza» dio Helenik. Azken urtebetean 35 leitzarri 50 isun jarri dizkiete arrazoi politikoengatik. 52.000 €ko zorra metatu dute oraingoz

### KIROLA → 44

Nafarroako lehen mailako aizkolari txapelketaren finala igandean, urriaren 5ean, jokatu da Etxarri-Aranatzen

### ZOZKETAK → 52



Txartela egiteko  
deitu 948 63 54 58ra

ARGAZKIA: MIKEL ECHEGARAY



# KONTRABANDISTEN BESTA

## ORTZIRALA | 2014ko URRIAK 10

**18:00** BERAn, Longboard Eskola  
• Ikastaroak eta erakustaldiak Kiroldegiaren parean

## LARUNBATA | 2014ko URRIAK 11

**Salgai-Hondarren Ferria** (egun osoan, Bentek antolatua)  
Egun osoan **Joku-Parkea**: • Haurrendako animazioak eta jokoak  
• Ibilaldiak pottoka gainean

**09:30** Mini Down Hill Free Ride Longboard txapelketa  
• Patinetan jautsiera (egun osoan)

**11:00-17:00** 'Kontrabandisten' Aperitiboa eta Menua bentetan  
Ikuskizunak: BAZTANgo gaitariak, BERako dantzariak eta BERako trikitilariak

**17:00** Mini Down Hill Free Ride Longboard txapelketaren finalak • Sari banaketa

**21:00** Diak BERAn, Goat Longboak eta IBARDINek antolatua

## IGANDEA | 2014ko URRIAK 12

**Salgai-Hondarren Ferria** (egun osoan, Bentek antolatua) Egun osoan **Joku-Parkea** • Haurrendako animazioak eta jokoak  
• Ibilaldiak pottoka gainean

**10:00** Familiendako Ibilaldi Kulturala  
• Izen-emateak 09:30-10:00 INFO IBARDINen  
• Irteera 10:00 H Venta ELIZALDEko aparkalekutik

**10:00-18:00** Desafioa: 'Kontrabandisten Igoera'  
• Izen-emateak 09:00 INFO IBARDINen  
• 3 irteera goizez, 10:00, 11:00 eta 12:00 H.  
• 3 irteera arratsaldez, 15:00, 17:00 eta 18:00 H.  
• 18:00: sari banaketa INFO IBARDINen

**11:00-17:00** 'Kontrabandisten' Aperitiboa eta Menua bentetan  
Ikuskizunak: Los Incansables txaranga,

Urruñako Primadera abesbatza


**18:00** Bidai baten zozketa 'TTSAS-BIDAIA MEDITERRANEOAN'

**IBARDIN**  
Urriak  
10, 11, 12



# GARAI HURA GARA

Andoni Egaña  
Xabier Lizaso



# GARAI HURA GARA

*ikuskizuna*

bertolanta  
Andoni Egaña

Xabier Lizaso  
piano-jotzalea



Eguna: 2014/10/04

Ordua: 19:30

Lekua: Berako Kultur Etxea

Sarrera: 6€



35 herritarri, 50 isun. Denera 52.000 euroko zorra. Horixe da azken urtebetean leitzarrek izan duten isun jasaren ondorioa. 2013ko irailaren 9an Espainiako Barne Ministroa herrian

izan zenetik, «isunak areagotu dira tarte motzean 12.000 eurotik 52.000ra iritsita» azaldu digu Helenik. Guardia Zibilaren helburua «herrian sortzen den edozein mugimendu

geldiarazi eta beldurra zabaltzea da» dio. Errekurtoak atzera bota eta batzuei isunak bikoizten dizkietela ikusita, zorra ordaintzen laguntzeko ekitaldiak antolatuko dituzte.

Heleni ZABALETA URKIOLA | Isuna jaso duen leitzarretako bat

# «Begiz jota dute herria, zer suma dabilta eta egoera itogarria da»

Eneritz IRAOLA | LEITZA

## Zein da egoera?

Argi dago leitzarren aurkako eraso handi bat ari direla gauzatzen. Bost bat hilabetetan isunen izugarriko gorakada izan da. 12.000 euroko isunak genituenean hasi ginen isundutakoak elkar-tzen. Maxurrenea auzia zela eta Fernandez Diaz Barne Ministroa Leitza-rra etorri eta herriak bere haserre adierazi zionean okerrera egin zuen egoerak. Badirudi isunak erakutsi genuen oposizioaren ondorio edo ordain direla. Bisitaren ondotik, isunak egunero iristen hasi ziren eta 12.000 eurotik 52.000 eurora igoen kopurua.

## Zein delitu inputatzen dizute?

Isun gehienak 450 eurokoak dira, presoan aldeko mobilizazioetan parte hartzeagatik, Herriraren ilegalizazioaren aurkakoetan... baimendutakoa baino jende kopuru gehiago geundela diote, horrela ez izan arren. Kartelak eta pankartak jartzeagatik ere izan dira isunetako batzuk. Kontua da, isun horiei helegitea jarri diegula eta atzera bota eta gainera isun batzuk bikoiztu direla, 900 eurokoak dira orain. Zortzi bizilagunei 3.000 euroko isunak ere iritsi zaizkie herriko kale nagusian alderik alde pankarta bat jartzeagatik. Batzuei egon ez ziren mobilizazioetan



ARGAZKIA: ENERITZ IRAOLA

Helenik 450 euroko bi isun jaso ditu zenbait mobilizaziotan parte hartzeagatik.

## BERAIEN ESKU

«Erabat arbitrarioak izan litezke. Beti da zure hitza berearen kontra eta beraiei profesionaltasun eta objektibotasunez jokatzeko dutela aitortzen die legeak. Zoritxarrez legea horrela dago egina».

parte hartzea ere egotzi diete. Gainera, isundutak ez gara identifikatutako izan eta hori justifikatzeko diote sobera eza-gunak garela. Adinari dagokionez, jubilatutak, helduak... baina bereziki gazteak dira kaltetuak. **Isunen aurrean zein aukera dituzue?** Azkenean ordaindu beste erremediorik ez dugu, nomina badugu bertatik kenduko digutelako. Helegiteak jartzen saiatu gara, baina guztiak atzera botatzen dituzte eta batzuetan ordaindu beharrekoa bikoiztu egiten da. Azken epai hori ere errekurritu liteke baina, prozedimentu berriak abiatuta isuna handitzen joateko arriskua ere hor

dago. Nahikoa diru ematen ari gara dagoeneko. **Diru karga honi nola egingen diezue aurre?** Ekimen desberdinak egin dira diruabiltzeko, zozketak, afariak... Baina orain arte egindakoa ez da nahikoa, kopuru oso handiak direlako. Kontuan izan behar da isundutako guztiak egoera ekonomiko desberdinetan gaudela. Herritar askok lagundu digute, aitortu diguten babes handia izan da eta eskertu behar da. Azken finean adierazpen askatasunaren aurkako erasoak ari direlako egiten. Hala ere, asko falta da ordaintzeko eta horregatik ekimenak antolatzen segitze-ko asmoa dugu.

## Guardia Zibilaren presentzia ere areagotu da?

Lehen ere handia zena, orain handiagoa da. Herrian edozein lekutan egoten dira. Kontrolak ugari dira. Noiznahi daude herri sarreran eta hamar minutuz bada ere kontrola jartzen dute. Kotxe pila bat gelditzen dituzte tarte horretan, gehienbat gazteak. Gero handik, beste txoko batera joan eta berriz jartzen dute kontrola. Erabatekoa da beraien presentzia kalean, handik edo hemendik kaltea eragin nahian dabilta.

## Film labor batek ere zeresana eman du berriki...

Duela bi urte egindako film laburra da eta salaketa orain izan da. Sinesgaitza da egoera. Baina argi erakusten du zer suma dabiltzala. Gazte batek egindako pintada baino, laburmetraiaren bukaera begiratu behar ko lukete garrantzitsua hori baita.

## Baduzue isun gehiago iristeko beldurra?

Ezin liteke jakin baina horrela segituz gero ez litzateke batere arraroa. Alde horretatik beraien eskuetan gaude, erabat arbitrarioak izan litezke. Beti da zure hitza berearen kontra eta beraiei profesionaltasun eta objektibotasunez jokatzeko dutela aitortzen die legeak. Zoritxarrez legea horrela dago egina.



GIZARTEA → HORMA-BALDEAREN KANPAINA AILEGATU DA GURERA

# ELA eritasunaren ezagutza eta ikerketa bulkatzeko bustialdiak

Duela gutti arte jendeak kasik ezagutzen ez zuen gaixotasun hau ahoz aho dabil orain

Esklerosi Lateral Amiotrofikoa (ELA) eritasuna. Beharbada aunitzengatik ezezaguna zen duela hilabete pare bat arte. Orain, eritasuna ezagutarazteko eta ikerkuntzara bideratzeko dirua biltzeko helburuarekin mundu osoan egiten ari den *Ice Bucket Challenge* kanpainari esker hitzetik hortzera dabilen eritasuna da. Hain zuzen, kate edo birus moduan, hormatutako urez betetako baldeak burutik beheiti botatzen ari dira famatuak eta hain famatuak ez direnak, batak bertzeari txanda emanaz. Gure ingurura ere ailegatu da kanpaina. Irailaren 20an, Amaiurko sokatira taldekoak busti ziren, duela bi urte eritasun honekin hildako Joxe Jabier Sarratea taldekidea gogoan. Amaiurtarrek Uhartetik jaso zuten gonbitea, Miguel Indurain txirrindulari ohiak eta Atarrabiako Kultur Etxeak bezala. Orain, elkartasun katea ez eteteko, BRT-Menditarrak, Baztango Batzar Orokorra eta Elizondoko Abesbatzari bota die ELAren ikerketarako dirua Amaiurko sokatira taldeak.

## Aitor AROTZENA

Esklerosi Lateral Amiotrofikoa (ELA) muskuluen endekapenezko eritasuna da. Bere eraginez, burmuineko eta bizkarreko motoneuronak euren jarduerara pittanaka moteltzen dute, guztiz hil arte. Mailakako paralisia sortzen du, nerbio-bulkadak ez dira giharretara eta organoetara ailegatu eta aitzindua dagoenean erabateko paralisia ere eragiten du. Gehien bat gizasemei eragiten die eta oraindik ez dago eragilearen sendabiderik topatu. 50 urte ingurukoak dira gaixo gehienak eta urteetan aurrera egin ahala gaixotasunaren sintomak argiagoak dira. %5 eko proportzian familiarreko norbait ere pairatu du eta herentzia bitartez jasotzen da, baina ez da kutsakorra. Herentzia bi-

dez jasotako kasuetan, sintomak gazteagoak nabari dira eta bizi itxaropena laburragoa da. Hala ere, ez da ohikoa herentzia bitartez jasotzea.

ELA-ren eragileak ez daude guztiz argi, ez eta bere garapena ekiditeko erabil daitezkeen metodoak ere. Gainera ez da oraindik zehaztu ELA zein modutan zabaltzen den gaixoengan. Bere jatorria azaltzeko zenbait hipotesi formulatu dira, hauek dira aipagarrienak: infekzio eragileak, sistema inmunitarioaren disfunczioa, herentzia, substantzia toxikoak, desoreka metabolikoak eta desnutrizioa. Ez dago argi prozesu honek zergatik eragiten dien motorei bakarrik, neuronak infekzioetatik libre utziaz. Hori buruz, gaixotasunaren eragileek motoneu-

ronetan sortzen dituzten ahultasunak aipatu izan dira.



Amaiurko sokatira taldeko lehengo eta oraingo tiralariak, ELAren ikerketa


Oraindik ez dago ELA gaixotasunaren aurkako tratamenterik,

kalanbrek eta beste zenbait minek eragindako ezinegonak lasai-

## ESKLEROSI LATERAL AMIOTROFIKOA ZER DA?

### Sintoma eta faseak

- **Klinikoa:** Esklerosiaren lehenengo sintoma eskuen mugikortasuna mugatzea da eta muskuluen atrofiatzea gertatzen da. Kalanbrek ere izaten ditu eriak.
- Denbora pasatzen den neurrian, mugikortasun mugatua gorputz adarretara zabaltzen da. Sentsibilitatea eta masa muskularra ere galdu egiten dira eta azkeneko gorputz atalek hildako batenaren itxura hartzen dute.
- Hurrengo fasean lepo, mingain, faringe zein larinjeko muskuluetara eta zenbaitetan gorputz enborra ere zabaltzen da.
- Gorputz atal hauek sentsible zein hotzak geratzen dira.





ARGAZKIAK: IXABEL ALEMAN

keta bulkatzeko busti ziren irailaren 20an.

DATUA

376.000

EURO

bildu dituzte estatu  
espainiarrean horma-balde-  
aren kanpainaren bitartez  
hilabete batez, abuztuaren  
15etik irailaren 13ra.

tzen dituztenak baino. Hala ere, egindako pro-  
ba desberdinek gaixo-  
tasuna mugatzea lortu-  
ko denaren itxaropena  
handiagotzen dute. Fi-  
sioterapeutak, logope-  
dak... bezalako profes-  
ionalek ariketa desber-  
dinen eta tresna tekno-  
logien bitartez inoren la-  
guntzarik gabe molda-  
tzen irakasten diete gai-  
xoei, hau da, gaixota-  
sunaren mugetatik har-  
ratago independenteak  
izaten. Gaixotasun kon-  
plexu honen aitzinean

elkarlana beharrezkoa  
da erien bizi baldintzak  
hobetu daitezzen.

Elkarlan horretarako  
ezinbertzekoa da eza-  
gutza. Hurbilean suer-  
tatu ez bada, guttik du-  
te eritasunaren sinto-  
men, garapenaren eta  
ondorioen berririk. Alde  
horretatik Ice Bucket  
Challenge kanpaina ari  
da bere bidea egiten-  
mundu osoan.

Kritikak ere egin zaiz-  
kio, batez ere famatu-  
ak bere burua ager-  
tzeko nabarmenkeriaz  
eta sakela hustutzer-  
koan xuhur antzean ari  
ote diren salatuz, baina  
Hego Euskal Herrian eri-  
ak eta senideak lagun-  
tzen lan egiten duen  
ADELA elkartetik diote-  
nez, bere helburua be-  
tetzen ari da: «jendeak  
eritasunari buruz gal-  
detzea, jakinmina piz-  
tea, ezagutzea eta iker-  
ketarako dirua biltzea».

MARTIN SARRATEA ETA MARI PAZ AZKARRAGA

## «Afektatua dagoenak orai ez du sendabiderik, baina aitzinera begira ari dira ikerketa lanean»

Elizondon, Bagordi magalean da-  
goen Ernautenekobordako Mari Paz  
Azkarragak eta Martin Sarrateak  
hurbiletik ezagutzen dute ELA eri-  
tasuna. Duela bi urte, 39 urteko se-  
mea, Joxe Jabier galdu zuten eri-  
tasunaren ondorioz. Gurasoek hun-  
kiturik gogoratzen dute semea lau  
urtez itzaltzen nola joan zen.

Mari Pazek aipatu digunez, «gaur-  
gaurkoz ELAK ez du sendabiderik,  
baina ikerketen bidez, badute es-  
perantza geldiarazteko. Afektatua  
dagoenak ez du sendatzerik orain,  
baina etorkizunera begira ari dira la-  
nean». Gaur egunean, ELA duzula  
diagnostikatzeak heriotz-zigorrera  
kondenatzea bezalako delata ere aip-  
atu digu: «Gehien bat gizasemei  
afektatzen die eta berantenez bortz  
urteren buruan heriotza dator. Iru-  
ñeko elkarteak ezagutzen dugu 14  
bat urtez eri dagoen emakume bat,  
muñeka bat bezala paralizaturik da-  
go, baina bizirik... kasu bakarra da».

Eritasuna bapatean hasten da.  
«Semea nekatzen zen, botatzen  
zen... ardien ilea moztera gaten zen  
eta kontzeko indarrak ez zuela ohar-  
tu ginen» dio Martin Sarrateak.

Mari Pazek dioenez, «eritasuna-  
ri buruz zerbait aditu egiten duzu,  
baina ez bazaizu tokatzen ez daki-  
zu zein gogorra den... gogorra-go-

gorra da, tristea, ingurukoendako  
ere lan handia da, gu bi lagun ginen  
berekina eta ez zakun ezta minutu  
bat ere ematen. Semea sorgorra ere  
bazen eta begiradarekin elkar uler-  
tzen genuen hondarrean». Gainera,  
mugikortasuna erabat galdu arren,  
burmuinak lanean segitzen du eta  
erik badaki zer gertatzen zaion eta  
zer gertatuko zaion.

Nafarroako ADELA elkarteak bil-  
tzen dira afektatuak. Fisioterapia,  
errehabilitazioa, logopedarekin so-  
lasi landu eriarekin, senideek la-  
guntza eskaini...: «Denetara 35 bat  
lagun badaude afektatuak Nafarro-  
an eta Elizondon bertan lau kaso  
ezagutzen ditut. Baina horietatik  
zortzi bakarrik joaten ziren neguan  
errehabilitaziora, orain gutiago», ai-  
patu digute Ernautenekobordako  
senar-emazteek, semearen argazkia  
eskuetan kontzen dutela.

Hormaz betetako baldeen kan-  
painarekin eritasuna ezagutzera  
eman eta ikerketarako dirua bildu  
nahi dute. «Hasieran 100 euro es-  
katzen zuten, baina egoera nola da-  
goen ikusita, borondatea eskatzen  
da orai». Kontu zenbakiak ere za-  
balik dituzte La Caixan: EF  
8421005237642100256372 eta Eus-  
kadiko Kutxan: 2035 0101 93  
1010014074.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Martin Sarratea eta Mari Paz Azkarragak semea galdu zuten eritasunarekin.





**Nire txanda**  
Koro IRAZOKI

## Merke... eta ona?

**D**irua ongi zaindu behar dugula ederki ikasia dugu, eta gaur egungo egoera dela eta, gero eta kasu gehiago ematen dugu erosketak egiterakoan.

Baina hala ere, iduritzen zait merkeena erosi aitzin, gure buruari galdemodu batzuk egin beharoko genizkiokela. Adibidez: Zergatik dira hain merkeak arropa batzuk? gutti ordaindu eta egoera kaxkarrean lan egiten duen jende aunitzen sufrimenduari esker. Zergatik dira hain merkeak esne marka batzuk? ez dakit xuxen, baina erranen nuke gehienetan gure baserritarrek izaten direla kaltetue-nak. Zergatik dira, gure herrietako denda tikiak baino puskaz merkeagoak Txingudi, Itaroa... eta antzeko tokietako produktuak? enpresa izigarri potenteak direlako, eta bai ekoizleei eta baita langilei, nahi dituzten baldintzak jartzea posible dutelako. Gure denda tiki hauek aldiz, ez dute halako ahalmenik. Eta gisa honetako kasu franko aipatu ahalko ziren.

Honekin erran nahi dudana hau da: erosterakoan, prezioaz gain, bertze gauza batzuk ere kontuan hartu beharko genituzkeela.

### Ezpala

Aitor AROTZENA

## Urruntze agindua hurbiletik

**U**rruntze agindua duen mutil-lagun ohi erasotzailea lehendik institutuan izena emana zegoela eta bertze ikastetxe batean matrikulatzea agindu dio epaile batek 15 urteko neskatiko baztandarrari, erasotua zigortuz. Logika horrekin, zure erasotzaileak lantokian edo herrian *antiguedade* gehiago baldin badu, maletak prestatzen hasi behar! Orain ere justiziaren agindua justiziatik urrun!

### Nabarmentzekoak



Juan MIHURA  
Igantzin garaile

Igantzi XXXIV. Artzain zakur lehiaketan nagusitu zen Heletako artzaina, *Gringo* zakurrarekin. Zortzi artzainek parte hartu zuten lehen aldiz Elusta aldean egin zen lehiaketan.



Aurelio GUTIERREZ  
126 bunker Beran

Bidasoa Ikerketa Zentroak bi urtez egindako lana bideo batekin boro-bildu du. 1939-1945 urteen artean gerrako preso errepublikarrek egindako 126 bunker dokumentatu dituzte Beran.



Patxi OLAZAR  
Nafarroako txapeldua

Etxeberría IV. arekin bikote eginez Nafarroako erremonete txapelketa irabazi du atzelari doneztebarrak. Bi herri-tarri, Ezkurra II eta Julen San Migeli irabazi zien finalean.

### Atzera begira → 2004-X-07 / TTIPI-TTAPA 383 zk.



### Laxoa Elkarteak ospakizunetan

Baztan-Errekako Laxoa txapelketak Zilarrezko Ezteiak bete zituen duela hamar urte, eta 25 urteetako txapelketako txapeldunak eta lehendabiziko zuzendaritza batzordea omendu zuen Laxoa Elkarteak Iruritan, Tiburtzio Arraztoak *Guate-laxoa, la modalidad mas antigua de la pelota vasca* liburua aurkeztu zuen bezperan. Doneztebe zen txapel gehien lortua zituen herria, baina bitxia baldin bada ere, ez zen pilotari txapeldun gehien zituena. Izan ere, 14 txapeletatik 12 laukote berak eskuratuak zituen. Beraz, Doneztebek 10 pilotari txapeldun zituen eta Iruritik, txapel guttiagorekin, 13 pilotari txapeldun zituen.



**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usosa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larraide, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

**Fundazioaren Presidente** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

### 2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	.....40€	Europa	.....59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	.....34€
Ipar Euskal Herria	.....59,50€	Amerika eta Australia	.....124€	Leitza	.....17€



Eusko Jauriaritza Kulturako Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Bortziritako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

## Kolaborazioak

### Eskoziako erreferendumaz

[Imanol IBARROLA GOÑI \(Doneztebarra Edinburgon\)](#)

**A**laia eta tristea da,aldi berean gaurko eguna. Alaia Eskoziak bere etorkizunari buruz iritzia emateko aukera izan duelakoz. Tristeia, berriz, atzo gertatu zen erreferendumeko emaitzak uste baino txarragoak izan direlako.

Bertan bizi garen euskaldunak (eta Euskal Herritik momentu historikoa lekuan ikustera etorri zirenak) gogotsu elkartu ginen "Royal Mile" Edinburgoko kale nagusian arratsaldea alai eta batera pasatzeko. Musiak alaiturik gora eta behera ibili ginen, gure Herria ikus zedin. Eta lortu genuen! Zenbatek galdetu izanen ziguten nongoak ziren gure ikurrak, non zegoen Euskal Herria, eta zein zen gure aberriaren egoera gaur egun! Danimarkarrak, estatubatuarrak, japoniarrak... hamaika herrialdetako biztanleek interesez ikusten gintuzten, zerbait ikasteko asmotan. Giro politan bada pasa genuen arratsaldea, urduritasuna geroz eta nabariagoa zela.

Eguzkia sartu ahala, garagardoak lagunduta, geroz eta konfiantza handiagoa genuen emaitzaren inguruan. Parlamentura joan ginen han eskoziarrekin batera bozken kontaketa besta giroan jarraitzeko. Gutako batzuk emaitzak kaleratu aitzinetik erretiratu ginen, biharamunean herrialde (hobe erranda, estatu) berri batean ernatuko ginelakoan.

Baina beldurrak irabazi du oraingo honetan. Baiezkoren kanpaina ikusgarriagoa izan den arren, ezezkok hartu duen bidea eraginkorragoa dela dirudi. Izan ere Eskoziak aldaketaren bidea hartu beharrean berdin jarraitzeagatik egin baitu apustu. Ez du arriskatu nahi izan, Erresuma Batuko aginpean egotea onuragarriagoa izango zaielakoan.

Hala ere, sentsazio samin hau alde batera utzita, irakurketa positiboari ekingo diogu. Alde batetik, YES kanpainak egindako lana argi dago ez dela deusean geratu. Emaitzak ikusirik, etorkizunean bertze erreferendum bat izatea ez litzateke arraroa, eta dagoeneko hazia sustraitzen dago. Akaso fruitua oraindik ez zegoen biltzeko prest. Bestalde, Eskoziako prozesuak indarra ematen dio Euskal Herriko, Catalunyako eta beste hainbat herrialdetako mugimenduei, izan ere bakoitzaren eremutik at kasu bakoitza ikustera ematen baitu, orokorrean geroz eta jende gehiago kontzientziatuz herri oren subiranotasunaren garrantzia. Eskoziak izan du bere iritzia emateko aukera, eta hori da, azken finean, garrantzitsuena. Erresuma Batuko parte izaten jarraitu nahi dute, eta gehiago edo gutxiago gustatu, haien erabakia izan denez, errespetagarria da. Ziur naiz, ordea, denbora asko pasa aurretik guk ere gurean horrelako aukerarik izanen dugula, jartzen dituzten trabak gaingiduz. Ulertu beharko lukete herri oso bat osatzen duten gizabanako gutzieren iritzia isiltzea ez dela posible. Ez dezagun ahaztu beraz: Eskoziak atzo bizi izan zuen erreferenduma Euskal Herrian izatea, eta haiek hatzetatik joaten utzi zuten aukera errealtate bihurtzea GURE ESKU DAGO!

### Denetik jan, gauza garbiak

[Nerea PETRIRENA \(Doneztebako Osasun Zentr. erizaina\)](#)

**M**odu osasungarri eta orekatuan elikatzea hargiz garrantzitsua da osasunerako. Modu egokian ez jateak, eritasunak sortu edo larriagotu ditzazke. Elikadura sano eta orekatu batean, era guztietako elikagaiak sartu behar dira, kopuru egokian, beti ere.

Komeni da, besteak beste, ogi integrala, entsalada, berdurak, patatak, fruta eta esnekiak egunero jatea. Onena denetatik jatea da, zereal, fruta eta berdurak ugari, haragia eta deribatuak neurritz eta koipea urri. Hona hemen sanoago elikatzeko argibide batzuk:

- Ogia, zerealak, arroza, pasta eta patatak, gure elikaduraren oinarriko elikagaiak dira. Hauetatik erdies ten ditugu karbo-hidratoak, hau da, funtzionatzeko beharrezkoa dugun erregaia, gasolina, energia. Hau ek integralak badira, hobe.

- Olio eta koipea ere beharrezkoak ditugu, baina energia haunitz ematen dutenez, hauetatik gutxi hartzea hobe da eta oliiba-olioa bada hobe. Olio eta Koipe guztiak ez dira berdinak eta orokorrean zerikusia dute kolesterolarekin, bihotzeko eritasunekin eta osasun arazo gehitzearekin.

- Frutak, berdurak eta barazkiak bitamina eta mineralak aberatsak dira, horregatik hargiz osasuntsua da frutaz, berdurez eta barazki az hornitutako elikadura. Egunero entsalada, barazkiak eta guttienez bi fruta fresko jatea komenigarria da.

- Haragia, hegaziak, arraina, arrautzak, lekariak eta fruitu lehorrak elikagai lagungarriak dira hazteko eta gorputzaren higadura konpontzeko. Haragia kalitatezko elikagaia da, baina ez da beharrezkoa egunero jatea. Arraina haragia bezain inportantea da. Lekariak dira proteinarik merkeenak eta fruitu lehorrak ere proteinak dituzte.

- Esnea, jogurta eta gazta ere lagungarri dira hazteko eta higadurak konpontzeko. Gainera, kaltzioa dute, hezurak indartzeko beharrezkoak dira. Gaingabetuek edo erdigaingabetuek, Koipe gutxiago dute, beraz hobe hauetatik jatea.

- Zuntza ona da idorria eta hesteetako arazo batzuk sahiesteko eta lekarietan, ogi integrarekin, berduretan eta frutetan aurki dezakegu.

- Ura ezinbestekoa da. Ura edateak hidratatu egiten du eta gai kaltegarriak eliminatzen eta idorria hobetzen laguntzen du.

- Ardoa, batez ere beltza, baso bat edo bi eguneko hartzea oso ona da osasunerako. Sobera edateak berriaz, arazo ugari ekarri ditzake.

- Gatza: jaten ditugun elikagaietatik hartzen dugu gorputzak behar duen gatza, beraz, janariei gatza gutti bota behar zaie.

«Onena denetatik jatea da, zereal, fruta eta berdurak ugari, haragia eta deribatuak neurritz eta koipea urri»

## Irakurleak mintzo

Euskal presoak,  
S.O.S.

Fco José RAMADA ESTEVEZ  
(Euskal preso politikoa)

Euskal Preso Politikoa ak bizitzen ari garen egoera, inoiz baino ankerragoa da. Espainiako Gobernuak Euskal preso politikoa txanponaren truke bezala erabiltzea berriro ere erabaki duela. Noiz eta une honetan, traba eta oztopoen gainetik, euskal herritarren gehengoak, konponbide politikoa alde apustu irmo bat egin duenean.

Espainiako Gobernuak konponbidearen aldeko prozesu politikoa, espetxean lokaztu, hondatu eta gure ziegako giltzak lurperatu nahi ditu, gu bertan ustel gaitzen. Aspaldian, Ezker Abertzaleak eta bereziki ETAK emandako urrats garrantzitsuen ondoren, Gobernuak bere teilatuan duen pilotaren gainean asmatu ezinik eta erantzunik gabe jarraitzen du.

Gobernuak, betiko lepotik du burua, errepresioan oinarritutako bidearekin jarraitzen du eta garaile eta galtzaileen arteko diskurtsoan lerrotzen da. Horregatik, gobernuak, Euskal Preso politikoa egoera estu-tzea erabaki du. Horretarako, Francoren garaitik gaurdaino, euskaldunon aurkako espetxe politika anker eta zitalean oinarritzen da. Horren proba da gaur egun Ibon Iparragirre, Garikoitz Arruarte, Ibon Fernandez Iradi, Aitzol Gogortza, Txus Martin, Jose Ramon Lopez de Abetxuko, Iña-

ki Etxeberria, Jose Mari Etxeandia, Josetxo Arizkuren, eta Inma Berriozabal presoak, larri gaixorik daudela. Espetxe Legearen arabera kalean edo hurbileko espetxean egon beharko lukete, baina Estatuak, beraien egoera arintzeko, xantaia politikoa erantzuten die, alegia, egindakoaz damutzea eskatzen die.

Hemen Murtzian, Euskal Herritik 850 km-ra gaudela. Geure artean egon da orain gutxi arte Manuel Ventura Tome *Joni* tafallarra, oso larri gaixorik. 62 urte ditu eta prostatako eta biriketako minbiziak ditu. Duela gutxi, mediku espezialistaren zabarkeriagatik, birikaren heren bat kendu zioten. Sei hilabeteren ondoren egindako errebisio batean, kasualitatez, biriketaren nodulo bat aurkitu zioten. Murtziako ospital batean ebakuntza egin behar izan zioten. Ebakuntza egin ostean, ospitaleko egonaldia bere alabak lagunduta egin zuen, baina alabak uneoro, aita-aren gaixotasuna gutxi ez eta poliziek eragindako probokazioak ere jasan behar izan zituen.

Konfiantzazko sendagileek hartatu dezaten Nafarroako ospital batera gerturatzeko eskaera egin zuen, beharrezko osasun arreta jasotzeko eta bere senideengatik hurbilago izateko; behin behineko espetxealdia ere eskatu du. Izan ere, Joniren emazteak ere minbizi dauka eta ezin izan du senarra bisitatzera Murtziako espetxe honetara etorri.

Azkenean irailaren 24ko egunez utzi zuten

libre. Baina bitartean, espetxeak xantaia politikoa oinarritutako argudio lotsagarri eta kriminalak erabili ditu: bere kolektibo eta militantzia politikotik aldentzen ez den bitartean hemen jarraituko duela adierazi zioten. Alegia, damutuko baltiz, legean oinarritutako guztia onartuko lioketela, baina hori egin ezean, espetxean usteldu arte geratu beharko lukeela!

Egoera honek bere gaixotasuna sendabidean jartzeko ez dio batere mesederik egin eta hau oso larria da. Ospitalera, radioterapia hartu ahal izateko, sarritan joan behar izan du eta Guardia Zibilerik inguraturik egindako bidaia bakoitzaren tentsioz betetakoa izan da. Radioterapia, eskuak eskuburdinez lotuta dituela eman izan diote. Guardia Zibilak bertan direla biluztu behar izan du eta etengabeko probokazioak jasan.

Hau gutxi balitz, *Joni* 1. graduan eta erregimen gogorrenetan egon da. Espetxeko baldintza kaskarren ondorioz ere bere osasun egoera oraindik gehiago okertzeko arriskuan izan da, izan ere, lehengo graduan egon arren, modulo arruntetan gainontzeko presoekin ordu batzuetan elkarbizitza egin behar izaten dugu eta preso horien artean era askotako gaixotasun kutsakorak antze-man daitezke. (...)

Hau guztia, ez da kasualitate huts bat, Euskal Presoak heriotzara zigortzen gaituzten exterminioko politika bat da. Mendeku politikan oinarritutako espetxe politi-

ka da. Nahiz eta etengabe demokrazia eta giza eskubideez bere ahoa betetzen duen.

Gobernuak, Demokraziaren erudia esportatu nahi du, baina nazioartean, Espainiaren sinetsgarritasunean gerostez jende gutxiagok sinesten du. Estrasburgoko auzitegiak torturak ez ikertzeagatik edo kondena beteta izan eta presoan espetxealdiak luza-tzeagatik, behin baino gehiagotan belarritik tira egin dio. ONUko giza eskubideen aldeko ordezkari bat ere tortura kasuak ikertzeko eta Frantziako garaian eragindako krimenak argitzeko Espainiara etorri zen. Azkenean, Argentinako epaile batek bere gain hartu behar izan du ikerketa eta espainiar agintariak, mespretxuarekin eta zigorgabetasunez erantzun diote. Nazioartetik giza eskubideen alorrean emandako gomendioak eta epaiak bost axola zaie! Betiko politika egiten jarraitu nahi dute, errepresioa erabiliz.

Hala ere, Gobernuak, nazioartetik jasotzen ari den presioak eraginda, betiko bidetik jarraitzeko gerostez eta zailagoa du. Horrek, Euskal Herrian zilegitasun guztia galduta duela argi adierazten du.

Euskal Preso Politikoa, euskal eragile politikoa eta sozialekin batera, konponbidearen aldeko prozesuaren alde eginez jarraituko dugu. Eta sinestaz, herritarren bultzadarekin gaixorik larri dauden presoak kale-ratzea lortuko dugula. Premiazkoa da espetxe politika kriminal eta kru-

del honekin amaitzea. Euskal presoak Euskal Herriratzea gure eskutian dago!

Amaiurko  
Dorrekobordatik,  
esker onez

Dorrekobordako familia

Amaiurko Dorrekobordako familiakook etxea erre ondoan lagundu gaituzten guztiei eskerrak eman nahi dizkizuegu. Lehendabiziko momentutik harat hurbildu zinetenei, auzolanean lagundu duzueni, nahigabean animoa ematen egon zaretenei, edozertan laguntzeko borondatea erakutsi duzueni eta etxea berriz goratzeko sosa eman duzuen guztiei. Auniz izan zarete eta ezin denei banan bana gure esker ona agertu. Laguntza hori guztia ataka honetatik ateratzeko nahitaezkoa izanen da, hortaz, modu batean edo bertean gurekin egon zareten guztiei, lerro hauekin bertzerik ez bada ere, emandako laguntza eskertu nahi dizuegu. Herritarrek esku-balki eta elkartasunez agertu zarete eta, hori gauza ederra da. Momentuoro zuen guztien babesa sentitu dugu. Orain etxea berriz goratzeko paper lanetan ari gara eta horiek akitu bezain fite Amaiurko Dorrekoborda berriz egiten hasiko gara. Orduan betiko tokian izanen gaituzue, beti bezala atak irekirik. Esker mila eta ordura artio.

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**



**Prentsatik bildutakoak**



«Duela gutti arte, emakume haiek jende gaiztoa zirela uste izan da. 400 urte pasatu dira, eta beti uste izan dugu sorgin gaiztoak zirela. Pixkana jakin dugu justu kontrakoa izan zela. Emakume haiek biktima izan ziren. Kasu aunitzetan, heroi batzuk ere izan ziren. (...) Gureztat, ohore handia da sutan erre zituzten emakume haien egia zabaltzea».

**Koro IRAZOKI**  
'Sorgin haizea'-ko aktorea  
NAF. HITZA 2014.09.19



«Euskal Herrian eta gure mugetatik harago ere, publiko belaunaldi handi bat galtzen ari dela sumatzen dut. 25 urtetik behera, adibidez, ez da jende gehiegi joaten kontzertuetara (...) Lehen, taberna eta gaztetxeetan zuzeneko musika askoz gehiago eskaintzen zen eta lekuak betetzen ziren. Orain, nire ustez, 30 urteko jendea ez da asteburu guztietan ateratzen».

**Joseba IRAZOKI**  
Berako musikaria  
ON 2014.09.20

**11 galdera labur**

**Nor dugu Ainhoa Maritorea?**

Anizko neskatiko arrunt bat.

**Zein afizio dituzu?**

Egun pasak egitea, lagunekin afa-riak egitea eta nahiz eta ama naitzenetik nahi baino gutiago egin, besta egitea ere ikaragarri gustatzen zait.

**Xorroxinen berriemaile hastekoa zara, informatzaile edo xaltxera zaitugu?**

Xorroxinen informatzaile izanen naiz bai, baina gainerakoan ez dut nire burua xaltxeratako. Bertzeek erran beharko lukete...

**Zerk egiten ditu berezi Anizko bestak?**

Herri giroak, denok elkarrekin: haur, gazte, adineko... egunez, gauez...

**Ekitaldirik gustukoena?**

Larunbat arratsaldea, Baztan zopetarat joan aitzinetik sortzen den giroa.

**Bestetako egunik maiteena?**

Astelehena, zikiro eguna.

**Eguneko ala gaueko besta nahia-go?**

Larunbatean gauekoa eta astelehenean eguneko.

**Bestondoari aurre egiteko zein da modurik hoberena?**

oi oi!!!!... bestatik itzultzean zerbait jatea.

**Asteburuko planik hoberena?**

Lagun edo/eta hurrekin egun pasak egitea inguruko parajeetara..

**Anizko txokorik politena?**

Aniztar batendako dena du polita Anizek. Bat hautatzekotan, Urlei mendia.

**Amets bat?**

Kar kar kar, erran gabe amets izaten jarraitu beharko du.



**Ainhoa MARITORENA AZKARATE → Anizko gaztea**

**LABE ZAR**  
Tel: 948 631 076 - BERA

**ANTZUZELAI**  
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK  
Tel. 948 631 317 • Faxa: 948 631 587  
Irungo errep. BERA  
www.antzuzelai.com  
info@antzuzelai.com  
Antzinaideak, angeluak, orna antzinaoak, leihoak, ateak, arkuak, pilareak, tximiniak, enlaizak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

**XIFRELLI**  
Altoa 1 - BERA  
Tfona 948 631 488

**ZUBIONDO Enaitze AGUNDU**  
JATETXEA-SAGARDOTEGIA  
URRIAK 11 | 21:00 | ZUBIONDON | BERA  
**BERTSO AFARIA**  
Amets Arzallus | Iker Zubeldia  
3 SARIEN ZOZKETA: 2 lagunentzako arratsa Zubeldien 11 zozketako arratsa sartze / Euzko Karanzen Mayo arratsa Agundien

948 631 218  
Kanttonberri 1, BERA  
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA  
**KATEA-BIKE**

**ERROTAZAR**  
harategia  
Bertako produktua  
Etegara, 3 - BERA  
Tel/Faxa: 948 630 088

**MARITX**  
Legia, 23-BERA  
T. (948) 636 617 450  
Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak

## GIZARTEA

ERAKUNDE BERRIA → HIRU ERAKUNDEK OSATUA

# Euskararen mugaz gaindiko Sareuska sarea aurkeztu dute

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Hego Lapurdiko Hirigunea eta Bidasoa-Txingudiko Partzuergoa biltzen ditu

## TTIPI-TTAPA

Hego Lapurdiko Hiriguneak, Bortzirietako euskara mankomunitateak eta Bidasoa Txingudiko partzuergoak SAREUSKA euskararen mugaz gaindiko sarea sortu dute eta irailaren 19an aurkeztu Urruñan. Aitzinera eramanen duten lanari esker, euskararen erabilpena sustatu eta dinamizatzeko nahia dute. Horretarako, 2014 eta 2017 epealdian finkatutako ekintza planean, topaketa batzuk antolatuko dituzte harremanak indartzeko eta batez ere, lan ardatz batzuk adosteko. Sareuskak antolatu duen lehenengo ekitaldia Mintzodromoa izanen da Irunen udazkenean ospatuko dena, «eskolaz kanpo euskararen erabilpena zihurtatzeko».

Mugaz gaindiko elkarlana ekarriko duen proiektu honen helburu nagusia da euskararen erabilpena sustatzea, hainbat ekintza eta bilkuren bidez. Modu

berean, Mugaondoko euskara zerbitzuen arteko elkar lana bideratu nahi dute eta hautetsien arteko harremanak indartu nahi dituzte.

Ander Almandoz, Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehendakari eta Arantzako alkateak azaldu zenez, 2014. urtetik 2017. urtera aitzina eramanen den sare honetan «metodologia parte hartzaile bat erabiliko da». Alde batetik, zihurtatu du administrazioan lan egiten dutenen arteko idatzizko harremanak «elebidunak» izanen direla. Merkataritzan, Sareuska proiektuaren barnean herritarrei zuzendutako kanpaina eta ekintzak egingen dituztela ere aipatu du Almandozek, euskara sustatzeko asmoarekin. Bertzalde, turismoaren arloan euskararen erabilpena indartuko da, bai euskararen inguruan egingen diren ibilbide turistikoak, baita euskaraz izanen diren euskarri ezberdinen bidez ere (harrera gidaliburuak, telefono aplikazioak...). Almandozek iragarri du «haur eta gazteak biltzeko guneak sortu nahi dituztela». Modu berean, bertso eskola topaketak aurreikusitako dituzte, «hiru eremueta-ko gazteen elkar eza- gutza sustatzeko eta euskalki ezberdinak ezagutarazteko», ze-



UTZITAKO ARGAZKIA

Irailaren 19an aurkeztu zuten Urruñan Sareuska egitasmo berria.

haztu du Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehendakariak.

## MINTZODROMOA UDAZKENEAN

Sareuskari buruzko aurkezpenean, Almandozek kontatu du euskararen ikaskuntza eta alfabetizazioa laguntzeko, *Mintzodromoak* bezalako topaketak antolatuko dituztela. «Esko-

laz kanpo euskara erabiltzeko erabilgarria izanen da batez ere euskara ikasten ari diren pertsonentzat», gehitu du Arantzako alkateak. *Mintzodromoa* izanen da antolatuko duten lehenengo ekitaldia eta udazkenean ospatuko da Irunen.

Proiektuaren finantziarioa aipatzerakoan, Michel Ibarlucia, Hego

Lapurdiko Hiriguneko lehendakariordea eta euskararen arduradunak esplikatu du «mankomunitate eta eremu bakoitzak bere finantziarioa zihurtatuko duela». Modu berean, ekitaldi bakoitzarentzat aurrekontu ezberdinak pentsatuko dituzte eta gero hauek «denon artean onartuak izanen dira».



**KALITATE MAXIMOA  
PREZIORIK HOBERENEAN**



**AN ENERGÉTICOS LESAKA**  
Alkaiaga Industrialdea - Banarta, 18  
(N 43° 16' 30" - W 1° 41' 40")



**GASOLIO A  
prezio  
ezin hobekak**

ESKAINITZA BEREZIA!!

Irailaren eta urriaren 5 zentimo/litro deskontu zuzena bankuko bartelarekin ordaintzerakoan

ETA GARRAIOLARIANTZAT...

Kafea+pintxo edo ardoa+pintxo 250€ gasolio erositako eguneko menua 600 euro gasolio baino gehiago erositako gero

Erosketa-tiketa aurkeztu behar da\*

\*Zuzeneko indarrezko erabilpena 11.000. Erabilpena zehaztu behar da. Erabilpena zehaztu behar da. Erabilpena zehaztu behar da. Erabilpena zehaztu behar da.

ERABILGARRI EGUNEKO 24 ORDU



# Üdazken Neguko

## moda gehigarria

### Makillaje eta Orrazkerak

Denboraldi berrian ez da joera orokor bat nagusituko, horren ordez, inspirazio iturri desberdinak hartuko ditugu aintzat apaintzeko orduan. Aurreko denboraldietan bezalaxe, *Nude* makillajea izanen da nagusi baina oraingoan masailetako gorria gorago marraztuko dugu masailalboei forma emateko. Diseinatzaile batzuek muxika koloreko masailetakoa gomendatzen dute ezpain-barra matearekin konbinatuta.

Begiradaren indarrarekin jokatu da eta begi ilunak nagusituko dira. Horregatik, delineatzailea edo begietako lapitza eskura edukitzea komeniko da. Marra erdilodiak marraztu eta bukaeran isats ttiki bat egitea proposatzen dute adituek, 50. hamarkadako estiloa berreskuratuz. Ezpainetan kolore gorri eta morea dira aipagarrienak. Arrosa, *nude* eta *gloss* efektuak ere erabiliko dira. *Smokey eyes* efektua erabiltzen segitzea ere proposatzen dute.

#### ILE-MOZKETA ETA ORRAZKERAK

Estilo naturala lortzea da asmoa, ilea solte eramanda. Ile motz eta adats ertainen kasuan, ile nahasi edo ile bustiaren efektua proposatzen dituzte denboraldi honetan. Bestalde, ile lisoa ere modan egonen da, kiroletako buruko zinta batekin apaindua. 60. hamarkadako adats ertain lisoa ere kontutan hartu beharrekoa da, burugainean bolumen handia duena. *Ladylike* estiloko motots bajuak ere joeran daude.

Irregularitasuna ere boladan da, hala, albo batetik bertetik baino laburragoak diren ile ebakerrak eta kopeta-ileak aunitz izanen dira. Kopeta-ilea gustuko ez dutenentzat erdiko marra agerian eramatea proposatzen dute.

Txirikordak ere puri purian daude: txirikordekin osatutako ile-bilduak, txirikorda bikoitz indiarak, orrazkera erdi-bilduak *espiga* txirikordarekin, bi txirikordez osatutako diadema, estilo *retroko* ile-bildu txirikordatuak, *mohawk* txirikordak...

Gizonezkoen kasuan ile motza izanen da nagusi, zenbat eta motzago orduan eta hobe. Luzera desberdinak konbinatzea ere joera izanen da, aldeetatik motz moztu eta gaineko aldea luze samarra utzita adibidez. Erabat rapatua edo *buzzestiloa* ere ikusiko da. Bestela ile-marra alde batean eramatea egokia da, orrazkera hagitik klasikoa da hau baina edozein estilorekin ongi doa. Tupea eramaten segi nahi dutenei berriz, ilea zertxobait luzeago utzi eta nahasita eramatea gomendatzen zaie

**AINHOA**  
ESTETICA

EMAKUMEA - GIZONA

Parrokia, 21 DONEZTEBE | T. 669 552 283

**Luahi Estetica**

leapandegia • estetika zentroa • solarium

EZTEGARA KALEA, 20. BERA. 948 625 742  
ESTETIKA. 948 625 413

**ARRATE ESTETIKA ZENTROA**

**AURPEGIRAKO TRATAMENDUAK:**

- Aknearen aurkakoa 45€
- Zimuren aurkakoa 80€
- Peeling laukoitza 65€
- Lifting efektukoa 68€
- Gorritzeen aurkakoa 50€
- Begi eta ezpain kontornoa 45€

**MANIKURA ETA PEDIKURA**

- Manikura normala 15€
- Pedikura normala 15€ - 30€
- Permanentea 30€

**MAKILLAJEAK**

- Egurakoa
- Gauakoa
- Ezkontzetarako
- Jaunartzetarako

**PRESOTERAPIA 20€**

**DHA 30€ oroa**

**DEPILAZIOAK:**

- Arrunta
- Laser depilazioa: Bertan galdetu

Parrokia, 18 behea  
31740 DONEZTEBE  
948 450 286



ARROPA KONFEKZIOAK  
**MARI CARMEN**



Braulio Iriarte 22  
(Antzitekoa ondoan)  
ELIZONDO  
T 948 580 883

## Udazken koloreak aurten bizi biziak datoz



**FOSFORESZENTEAK BELTZAREKIN KORDINATUZ** Aurreko denboraldian neonak erabili ziren, baina udazken-negu honetan, haurren arropetako tonuak fosforeszenteak izango dira. Beltza, grisa eta itsas urdina bezalako basikoekin ikusiko dira. Hala ere, ez da komeni kolore gehiegi nahastea.

**MODAKO KOLOREAK GRISA EDO BELTZAREKIN** Laranja, gorriak, granateak, urdin ilunak, berdeak... fosforeszenteak ez dira baina bai oso biziak. Hauek neguari falta zaion alaitasuna ekarriko dute. Beltza eta grisa bezalako basikoekin kontrastatuko dute.



**MARRA ZABALAK JERTSE ETA POLOETAN**

Estanpatu eta janzki hauek ez dira berriak baina mutilei ongi gelditzen zaizkie. Modan dauden koloretakoak erosituz, diru gutxi gastatuta denboraldi guztietan armairua berritzeko aukera ematen dute. Denboraldi bat baino gehiago irautea nahi izanez gero, kolore neutrokoak erosi: urdinak, turkesa iluna... Eguneroko bakeroekin janzteko ezin hobeak dira.

**“COLLEGE” TXAKETAK** Aurreko denboraldietan marka gehienek erakutsi zituzten baina oraingoan “low cost” denda guztietako erakuslehietan egonen dira. Sasoi arteko jantzi bikaina da eta neguan ere berokiaren azpian jantzi daiteke. Edozein koloretakoa izan daiteke eta edozein ikur izan dezake. Eskolara joateko edo lagunekin jostatzeko jantzi aproposa da.

**BAKEROA TIRANTE ERORIEKIN** Iaz gazteen artean ikusi genuen jorera da eta aurten haur eta jaioberriek ere eramanen dituzte. Tiranteen funtzioa ordea ez da galtzei eustea izaneren, izterren aldera eroriak eramatea da asmoa, *grunge* ukitua lortuz. Gehienetan bakeroak izanen dira, slim-ak badira askoz hobe, hau da, estu estuak. Edozein koloretakoak izan daitezke baina grisa, bakero urdinak eta beltzak dira gomendagarrienak.



**URDIN ILUNAK DIRAU**

Iazko negu eta aurtengo udaberritik datoren kolorea da. Neskek ere eraman dute baina orain batez ere mutikoen jantzietan agertuko da. Kolore honek arropa eta aurregiari argitasuna ematen dio. Konbinazio polit bat lortu nahi baduzu, galtza urdin ilunak eta marra grisak dituen kamiseta janztea da proposamenetako bat.

**BI ANORAK BAKARREAN** Modako marka haundienek proposatzen duten janzkietako bat da eta hauekin ama guztiak poz pozik daude, anorak bat erositara bi lortzen direlako. Haurrek gehien erabiltzen duten janzkia da eta bi aldeetara jantzi litekeenez, look, kolore eta estilo desberdinekin errazago konbinatuko da.

www.kattagorria.com



**kattagorria**  
baitasuna maritako

TXANDAL, ARROPA ETA TXAMARRATAN  
AUKERA ZABALA: 0-12 URTE



Behoko plaza, 10 • LESAKA • 948 627 514

**LO@S Pek@S**

HAURRENTZAKO ARROPA 0-16 URTE



Deber Piti

LOSAN

Jarraitu gaitzazu Facebook-en:  
"las pekasa moda infantil"

Elzagibela, 4 behea DONEZTEBE  
T. 948 109 033 laspekas@hotmail.com



## MUTILENTZAKO ERE TURKESA

Intentsitate desberdinetan bai-  
na ia bilduma guztietan ikus-  
ten da kolore hau. Polo eta  
jertsetan eramateaz gain,  
denboraldi honetan ten-  
dentzia izanen diren txale-  
ko barrubigunetan ere iku-  
siko dugu.

## GAINJARTZEAK HOTZARI AURRE GITTEKO

Haurrak tenperatura alda-  
keta bortitzen ondorioz gai-  
xotu ez daitezten, arropa ka-  
pa desberdinekin janztea au-  
kera egokia da, adibidez ka-  
miseta, kiroletako jertsea,  
anoraka eta bufanda jan-  
tzita kanpoan ez dira erraz  
hoztuko.



# m

PREZIO EKONOMIKOAK

## Mirentxu

ESPEZIALISTAK  
BASERRITAR  
JANTZIETAN

B-15 Haurriko jantzi arropa  
6-16 urteko neska muturkotasun berantiarak  
Bortin-ekialde egundako sareak  
Borrayak, harruko arropa, kolortuak,  
gaitzeruak, zaskoak, oinetakoak

Plaza 4 - 48100 Leizorua - Euzkadi  
Tel: 945 881 777 - Fax: 945 881 778



# GIZONAK



**JUAN J. PIKABEA**  
**SENARGAIENTZAKO TRAJEA**  
 15 egunetarako  
**ZURE NEURRIRA**

Neurri haundiak  
 Galtzak eta bakerook 70 arte  
 Aitorrak 56 arte  
 Jertseak  
**NEURRIRA EGINDAKO GALTZAK**


Amestla z/g • DONEZTERRI  
 Tel. 948 451 670

## Denboraldi berrirako hiru *look* desberdin

Uda bukatu eta udazken-neguko egun hotz eta euritsueta jantziko duguna ezagutzeko garaia iritsi da. Berokiak, kazadorak eta trechak berriz ere nagusituko dira. Look egokia lortzeko, janziak ongi konbinatu behar ditugu denboraldiko koloreak erabiliz. Ez baduzu huts egin nahi, tonu leunak, neurrizkoak erabili, horrela zure alderdi dotore eta sofistikatuenan barmenduko duzu. Urdin ilunak, marroiak, kamela, gorri-morea, gris iluna eta beltza izanen dira gehien ikusiko diren koloreak.

### SPORT

Edozein egunetan karrikan ibiltzeko *look* erosoena da. Aitor bakeroa edo koadroduna galtza bakeroekin jantzita bikain joanen zara. *Cuffed jeans* joera aipatzekoa da. Hau da, galtzak azpitik tolestuta eramatea. Horrela bakeroak itxura desberdinetara egokituko dira eta oinetakoak eta galtzerdiak barmenduko dira. Galtza hauek *skinny* mozketakoak izan dira, bertzela hanka motzegiak ikusiko lirateke eta. Galtza hauekin oinetakoek protagonismo handiagoa hartuko dute. Botak arras ongi gelditzen dira galtza hauekin.



*Belzunequi* DESDE 1969

Emakume eta gizonetzkoen moda  
 Etxeko arropa

**UDAZKEN NEGUKO  
 DENBORALDI BERRIA**

Jaime Urrutia 44 • ELIZONDO • Tel.: 948 580 056

**M&M**  
 MERCEDES MONTA NOVON

Serapio Múgica, 11 • 20302 IRUN • 943 612 626 • [www.lopelettimercheirun.com](http://www.lopelettimercheirun.com) •



### CASUAL ESTILOA

Look honek lanera joateko edo kalera ateratzeko balio du. Dotorezia eta erosotasuna nahasten dira. Adibidez, *slim* mozketa duten galtza txinoak beroki edo txaketa batekin konbina ditzakezu. Marroiak eta kamel koloreak itsas urdinarekin nahasiko dira batez ere joera honetan.

### DOTOREA

Lanerako trajea erabili behar baduzu, itsas urdin koloreko slim galtzak, ator zuria eta itsas urdin koloreko gorbata marraduna edo tanto zuriak dituena daude joeran aurten. *Look* hau Oxford oinetako marroiekin osatzen ahal dira.

Grisa ere modan egonen da. Tonu neutroa denez kolore aunitzekin ongi konbinatzen du. Aspergarria ez suertatzeko urdina, gorri-morea, morea, militar berdea edo laranja koloreekin nahasi. Ator estanpatuekin ere alaitasuna emanen diozu zure *look*-ari. Betaurreko ilunekin, gorbatekin, zapelekin eta boltsoekin zure nortasuna ematen ahal diozu janzkerari.



# EMAKUMEAK

## Neurri haundiak



Denboraldi honetan neurri haundiko pitillo bakeroak eta gaueko soinekoak luzera berrieekin datoz.

Zure irudia liraindu nahiko bazenu, hona aholku bat: jantzi puntuzko *cool* estiloko jertseak harribitxiak dituzten gerriko estuekin.

Beroki eta txaketei dagokionez, landatar estiloko txaketak eta bakeroak nabarmendu behar dira. Klasikoak nahiago badituzu, jantzi parka, motorzale-jaka edo amerikana bat. Denboraldi honetan galtza motz bakeroak eta bermudak aunitz eramanen dira. Gonak nahiago badituzu, jantzi tolesdunak, hanka erdiraino iristen direnak eta mozketa zabalakoak.

Bakeroak gustuko badituzu, gerri altua dutenak emanen dizute hobekien, gorpuzkera nabarmentzen dutenak edo boot-cut estiloko galtza zabalak ere aukera ona dira.

*Looka* eguneratzeko pastel tonuko puntuzko jantziak, urjauzi mozketa duten txaketa luzeak eta puntuzko basiko casual-ak jantzi.

# Lulu

38tik 64ra bitarteko neurriak

Hondarribia kalea, 15 Atzeko aldeak • IRUN  
Tel. 943 616 165



Almatrichi  
Md'M *Legenda*

RINATTI  
Pura  
Collie







## 10 joera

Udako soineko, gona eta ator motzak albo batera utzi eta udazken-neguko arropen armairuan tokia egiteko sasoiak iritsi da. Denboraldi honetan nagusituko diren kolore, ehun, janzki eta joeren errepasoak egingo dugu.



**1. FOLK UKITUA:** larruzko txamarrak, txaleko iledunak, litsak dituzten antezko kazadorak, gona luzeak, pontxo moduko mantak eta txanoak. Ausart zaitez nahasketak eginen. Berreskuratu zure alderdi bohemioa.

**2. BEROKI LUZEAK:** iaz *cocoon* siluetaekin eta pastel kolorekoak ikusi bagenituen, oraingoan XXL neurriko beroki grisak eta kamel kolorekoek goxatuko gaituzte, orkatilaraino iristen diren berokiak.

**3. ESTETIKA ALPINOA:** neguko marrazkiak dituzten jertse lodiak, lumazko berokiak, betaurrekoak eta botak.

**4. CULOTTE GALTZAK:** orkatilaren gainetik gelditzen dira, bermuda baino luzeagoak. Luzera berezia da eta horregatik ongi ematea zail samarra da.

**5. GORRIA:** Karmin-kolore indartsu eta bizia gure armairuan sartzen badugu, konfiantza eta ziurtasuna erakusten duten estilismoak lortuko ditugu.

**6. GONA MOTZAK:** 60. hamarkada eta *Twiggy* estetika itzuliko dira. Gonak ez dira erraz belaunetara iritsiko, motz samarrak izanen baitira.

**7. BELUSA:** udazkeneko gauetan belusezko traje dotoreak eramanen dira.

**8. KAPA ETA PONTXOAK:** Diseinatzaile bakoitzak ukitu desberdina ematen badio ere, denek neguko hotzei aurre egiteko pontxo eta kapak proposatzen dituzte.

**9. ITSASONTZI-FORMAKO ESKOTEA:** sorbaldak erakustea nahitaezkoa bihurtuko da. Uhal edo tiranterik gabeko eskoteak eta V formakoak datoz sentsualitateari ateak zabalduz.

**10. BARRUBIGUNA EDO AKOLTXTATUA:** lumazko berokietatik hasi eta soineko barrubigunetaraino. Gure *look*ei sekulako bolumena emanen diote.







## POLTSAK

Osagarriak armairutik ateratzeko aukera bikaina izanen dugu denboraldi honetan. Zapel, eskularru, lepoko, zapi eta poltsak gure janzkeran zati garrantzitsua izanen dute. Dena den, ohikoa denez, osagarri izarra poltsa izanen da. Diseinu berritzaileak, estanpatu etniko edo loredunekin apaindutakoak, metalizatuak... poltsa barruan gordetzen dugunak adina inporta duelako poltsak berak.



### KOLOREAK

Koloreei dagokionez, denetarik ikusiko dugu. Pastel tonu argienak, zuri-beltzak eta kolore biziak. Poltsaren tamainak ere garrantzia du eta une bakoitzerako egokia dena hautatzen jakin behar da. Egunez ibiltzeko poltsa handiak eta helduleku motzekoak gomendatzen dituzte, beharrezko gauza guztiak sartzeko nahikoa toki izateko. Neurriaz gain, poltsa hauen kolore biziek ere erakarriko dute ingurukoen arreta, kolore horia eta laranja adibidez, moda-modan egonen dira. Gaez berriez, dotorezia eta *glamour* ukitua ematen duten *clutches* edo eskuko karterak dira aukerarik egokiena, zuri-beltzean.



### MATERIALAK

*Look* formala osatu nahi dutenek larruzko poltsa ugari aurkituko dituzte erakusleihatetan. Kolore klasikoak, beltza edo marroia adibidez edo pastel tonuak izanen dituzte aukeran.



BEOLA ETXEA • Ibardingo gaina, 30 • BERA T. 948 630 709

## DENBORALDI BERRIA!

gizon eta emakumearentzako arropa

# %10

## eko deskontua

### DENBORALDI BERRIKO BILDUMETAN

OSAGARRIAK, BITXIAK, BOLTSOAK ETA OINETAKOETAN AUKERA ZABALA

## UDAZKEN-NEGUKO MODA BERRIA DAGOENeko ZURE ESKURA!!!



Zure oinak zaintzen!

CALEZDOS DE OINAKOAK

**VIRGILIO**

Denborarik berria

Santiago,32 ELIZONDO 948 580 209  
www.calzadosvirgilio.com  
Larunbat arratsaldean zehar  
FAMILIA UGARIENDAKO %10eko deskontua

**CASA ETXEA COSTIZ**

ZAPATA-DENDA | LIBURU-DENDA  
PAPERTEGIA

Parrokia 17 | DONEZTEBE  
Tel-Faxa: 948 450 289  
costiz@telefonica.net

**Fluchos**

# OINETAKOAK

Udazken-negu honetan, hamaika aukera izanen ditugu gure oinak dotore janzteko: takoi geometrikoak, stiletoak (zuriak batez ere), orkatilerainoko botinak, plataformak edo belaunetaraino iritsiko diren bota luzeak ikusiko ditugu. Kiroletako zapatilak ere indartsu datoz.

Antea, txarola eta animalia estanpatuak udazkeneko koloreekin nahasiko dira: granatea, gorri ilunskia, marroia, beltza eta metalikoe-kin. Apaingarri metalikoak nagusituko dira, urre kolorekoak gehienbat. Boho estiloa ere nabarituko da, fleko ugarietan.



**GIZONEZKO**ei dagokien ez arrosa eta berde argia bezalako tonu leunak topatuko ditugu, baita kolore neutroagoak ere. Zola deportiboak dituztenak eta bota zabal eta altuak eramango dira gehienbat. Orokorrean kasual estiloaren aldeko apustua egin dute diseinatzaileek, janzkera urbana osatuz, dotorezia eta kirol estiloa nahasita.

# LENTZERIA

Kaleko arropen bildumez gain, barneko arropa bildumak ere ezagutzeko garaia da. Marka desberdinek barneko arropa, lo egiteko arropa eta etxean ibiltzeko arropa atera dituzte. Lentzerian apaingarriak nabarmenduko dira, kontrasteen sentzualitatea, ehunen feminitatea eta leuntasuna.

Lentzeria sexiena parpail eta tul beltzez beteta dator. Zuria eta beltza konbinatzen dutenak edo lila eta korala bezalako pastel tonuak dituztenak ere eramanez dira.

Lore estanpatuak dituzten klein urdin koloreko pijamak eta etxean ibiltzeko jantziak ere azpimarratu behar dira. Kamisoiak V formako eskotea eta parpailak izanen dituzte eta itsas urdin eta txikle kolorekoak ikusiko dira batez ere.




**FANTXIKE**

Jantziak 17/18 ELIZONDO 948 580 312  
www.fantxike.com

ZATOZ ZURE BENETAKO TALLA ZEIN DEN EZAGUTZERA  
70 talla desberdin ditugu!

zure gorputzak eskertuko du!





# ZATOK VENTA PEIORA MODA EZAGUTZERA

3 POMPES BENZI BIMSAK BLUE MONKEY CALVIN KLEIN CONVERSE DELSEY DENIM & SUPPLY DESIGUAL DOCKERS EASTPAK ESPIRIT G-STAR HILFIGER DENIM I.CODE IKKS JACKS&JONES KAPORAL KOCCA LACOSTE LACOSTE LIVE LEE LEVIS LITTLE MARCEL LOLLIPOPS LOTTO MANGO NAPAPIRI ONLY ONLY PLAY ORCHESTRA OXBOW PEPE JEANS PETIT BATEAU PROMISE RALPH LAUREN RELISH RIP CURL SAMSONITE SELECTED SUPERDRY THE NORTH FACE TOMMY HILFIGER TRESPASS VANS VERO MODA WRANGLER

**PEIO**  
mode

WWW.VENTA-PEIO.COM

Tel: +34 902 210 800 (est) | 0820 552 257 (fr)

Amegui | Danbarinea | Behobia | Landibar | Agus Benta | Ibañin





## BERA

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 10, 11 ETA 12AN

# Kontrabandisten Besta antolatu dute bigarren urtez Ibardinen

Salgai-hondarren feria eginen da asteburu osoan, *longboard* txapelketa, ateraldiak...

## TTIPI-TTAPA

Urriaren 10etik 12ra hainbat ekitaldi antolatu dituzte Ibardinen, Kontrabandisten Besta deitu duten ekimenaren harira.

Ekitaldiak urriaren 10ean hasiko dira, ortziralear, 18:00etatik aitzinera Longboard eskola eskainiko baita kiroldegiaren parean.

Urriaren 11 eta 12ko ekitaldiak, berriz, Ibardinen eginen dira. Larunbat eta igandean, egun osoz bentek antolatutako salgai-hondarren feria eta joku parkea (haurrendako animazioak eta jokoak, ibilaldiak pottoka gainean) izanen dira. Larunbatean 09:30ean II. *Mini Downhill free ride longboard* txapelketa hasiko da eta patinetetan jaitsierak izanen di-

ra egun osoan. 11:00etatik 17:00etara kontrabandisten aperitibo eta menua eskainiko dira bentetan eta Baztango gaitariak, Berako dantzariak eta Berako trikitilariak ikuskizunak eskainiko dituzte. 17:00etan txapelketaren finalak eta sari banaketa eginen dira eta 21:00etan Djak izanen dira Beran, Goat Longboard eta Ibardinek antolatua.

Igandean, 10:00etan familiendako ibilaldi kulturala abiatuko da Elizalde Bentako aparkalekutik. 10:00etaik 18:00etara Kontrabandisten Igoera desafioa eginen da eta sari banaketa. 11:00etatik 17:00etara Kontrabandisten aperitibo eta menua eskainiko da, Los Incansables txaranga eta Urruñako Primavera abesbatzarekin. 18:00etan, Medite-rranean barna itsasbidaia bat zozketatuko dute.

## Bertsoa eta musika urri hasieran

Ohikoa denez, urria kulturekitaldiz ongi hornitua dator aurten ere. Urriaren 4an, larunba-



UTZITAKO ARGAZKIAK

## Ertz jaialdian musika berezia

Hamabosgarren urtez, bertze musiken jaialdia egin da. Kontzertu bereziekin batera, umeei *asmatutako eta birziklatutako* musika-tresnekin jotzeko aukera izan zuten Maushaus tailerrean eta umeei beraiek lore eta hostoekin prestatutako diapositibak proiektatu zituen Asier Gogortzak.

ta, 19:30ean *Garai hura gara* ikuskizuna eskainiko dute Kultur Etxean Andoni Egaña bertsolariak eta Xabier Lizaso piano-jotzaileak.

Urriaren 12an, berriz, Bide Ertzean taldeak kontzertua eskainiko du 19:00etan Kultur Etxean.

Euskara Batzordeak Nafarroako Antzoki Sarearen laguntzaz antolatutako ekitaldi hauetara sartzeko seina euro ordaindu beharko dira.

## Bertso afaria Enaitzen alde

Ikasturte berrian ere Enaitzen aldeko ekin-izekin hasiak dira. Urriaren 11n, 21:00etan bertso afaria izanen da Zubiondo ostatuan. Amets Arzallus eta Iker Zubel-

dia ariko dira kantari. Afarirako txartelak Zubiondon bertan eta Purienea prentsadendan, Lesakako okindegian, Etxalarko plazako dendan, Igantziko Bi-biden, Arantzako Pabloenean eta Iturengo Herriko Ostatuan daude salgai.

## Julio Caro Barojaz hondar solasaldiak

Julio Caro Barojaren mendeurrenaren baitan, hitzaldi zikloko hondar solasaldiak eginen dira Beralandetan. Urriaren 3an, *Barojatarren sorginak* solasaldia eskainiko dute Koro Irazoki eta Juainas Paulek. Urriaren 10ean, azkenik, *Bizipenak: Julio Caro Barojaz solasean* izenburupean, hainbat herritarren testigantzak adituko dira.

## HISTORIA

128 bunker dokumentatu dituzte herrian

## TTIPI-TTAPA

Historiazaleak biltzen dituen Bidasoa Ikerketa Zentroak Beran Espainiako Gerraren ondotik eraikitako bunkerren inguruko dokumentazio lana bukatu berri du, bi urteren ondotik. Lehendik, lan horren zati bat beraien blogean argitaratu zuten eta orain bideoa egin dute. Lan honekin, *Frankismoaren mandoak* bezala ezagutu ziren preso errepublikarrei omenaldia eskaini nahi izan diete.

**Arturo**

Atropak | Eberako osagariak | Lentzeria | Mertzzeria

Atzalea, 20 BERA T. 948 630 136

**elika**

Dietetika eta elikadura

IXIAR ANDUEZA LANZ  
Dietista-Nutrizionista  
Kolegiatu zenbakia NA221

Itzea, 6 behea 31780 BERA  
948 631 283 645 708 512  
elika@elika.com

**ELIABORRILLA**

BILTEGIA 948 630 102  
FAUSTINO 647 810 152  
Bidasoa, 76 - atea 21-22  
31780 BERA



KULTURA → URRIAREN 31RA ARTE AURKEZ DAITEZKE

# Argazki lehiaketa antolatu du aurten ere Beti Gaztek

Azaroaren 8tik 30era erakusketa eginen da aurkeztutako lanekin

**Aitor AROTZENA**

Beti Gazte elkarteak argazki lehiaketa antolatu du aurten ere. Honela, nahi duten afizionatu guzietan har dezakete parte eta lanak urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira Beti Gazten, ohiko den sistema erabiliz.

Argazkien gaia librean izanen da. Paperean egindako argazkiekin batera, CD bat bidaliko da, aurkezturiko argazkiak edukiko dituen, JPEG formatoan, 300 pppko guttinenko bereizmenarekin. Egile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkezten ahal ditu eta berak erabakiko du argazkiaren neurria, nahiz eta horietako bakoitzak gehienez 30x40 cm.ko kartulinean jarrita egon beharko duen.

Lau sari emanen ditu Beti Gaztek. Lehenbiziko saria, 350 euro eta trofeoa izanen da eta bigarrena 250 euro eta trofeoa. Herriko egileen artean argazkirik onenari 200 euro eta trofeoa emanen zaio eta 200 euro eta trofeoa izanen da kirol argazkirik onenarentzat.

Azaroaren 8an emanen du erabakia epai-



ARGAZKIAK: A. AROTZENA

## Bittiriko bestak giro ederrean joan dira

Giro ederrean joan dira Bittiriko bestak. Txupinazoaren aitzinetik irakurketa saioa izan zen eta patata tortilla txapelketa. Erraldoi eta buruhandien konpar-tsa ibili zen karrikaz karrika eta herri kirol desafio polita eskaini zuten 600 bat kiloko belar-bolari hirukoteka tiraka. Mariatiaki aditzeko aukera ere izan zen. Hondar egunean, haurrentzako ekitaldiak izan ziren.

mahaiak eta azaroaren 8tik 30era, erakusketa izanen da Beti Gazte elkartearen egoitzan.

## Ba al zenekien

**Iaz Kontxako Bandera irabazi ondotik, aurten San Miguel Liga irabazi duela Agoitz Irazoki herritarrek Hondarribiako arraun taldearekin**



ARGAZKIA: A. AROTZENA

## Haurren Eguna arrakastatsua

Irain eskolako eta Tantirumairu ikastolako guraso elkarteek antolatutako Haurren Eguna ospatu zuten irailaren 20an. Goizean herri kirolak izan ziren plazan: koxkor biltzea, txingak, harri jasotzea, kontrabandisten lasterketa, zaku lasterketa eta sokatiran aritu ziren Haur eta Lehen Hezkuntzako neska-mutikoak. Sariak ere banatu ziren. Arratsaldean Harriondoan ekitaldi ezberdinak izan ziren.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

## 240 txirrindulari Mendi Bizikleta ibilaldian

Beti Gaztek antolatutako mendi bizikleta ibilaldia burutu zen irailaren 21ean. Denetara 240 txirrindulari bildu ziren, 160 ibilbide luzean eta 80 laburragoan, eguraldi bikaina lagun zutela. Inolako istripurik gabe egin zen probaren bukaeran, urtero urtero antolaketan lagundu duen eta aurten istripu larria izan duen Joseba Lasaren izenean maillota zozketa-tatu zen eta Jabier Zubieta suertatu zen saridun.

**IRU BIDE**  
Estrategia, Asuntza  
Bilbo, 31014  
Tel: 948 637 127

T. 948 627 519  
**KOXKONTA**  
JAIETXEA | LESAKA  
**URRIAK 4**  
**AFARIA + DANTZA**

LEHEN PLAZAK:  
Irakurketa saioa  
Amin eta Baska postea  
Ondu lema: eguraldi ona  
Sokatu lasterketa  
25€  
BIGARRENAN AUKERAK:  
Baski lasterketa leku berrak eta garbierak  
Baski lasterketa leku berrak eta garbierak

**BOBKO**  
FRAN AIZUA - LESAKA  
Tfno: 948 637 826

# ETXALAR

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 11N

## Gazte Eguna ospatuko da hirugarren urtez

Etxalarrera etortzeko besta busa izanen da Bortzirietan

### Irune eta Itsaso

Bertze urte batez ez da aspertzeko astirik izanen Gazte Egunean. Urriaren 11rako egitarau zabala prestatu dute eta bestabusa ere izanen da Bortzirietatik, joan-etorriko ordutegi zabalarekin.

- 10:00 gosaria izanen da Anttonion.
- 11:30 paella txapelketa. (3 laguneko taldeak zozketa bidez egingen dira eta osagaiak libreak).
- 14:00 bazkaria frontoian (txapelketan parte hartzen dutenek 5 euro; bertzeek 8 euro).
- 17:00etan gazte jokurak.
- 20:00etan trikipoteoa.
- 21:30ean bokatada.



ARGAZKIA: MARI LUZ ARIZTEGI

Larraburua elkarteak antolatuta sendabelarrei buruzko hitzaldia eman zuen Intxixu herri kultur lantaldeko Xabik.

- 22:30ean kontzertuak: Kalera, En Tol Sarmiento, Ingoaldea eta DJ Mattin Maia.

Gosari, paella txapelketa eta bazkarian apuntatzeko azken eguna urriaren 3a izanen da Elutsa edo Herriko osatuan.

### Iarmendiko uso postuen enkantea

Usategietako postuen enkantean, irailaren 6an, 21 postutik 2 hutsik gelditu ziren (17. eta 18.). Legeak agintzen duen *sesta* prozedura pasatuta bigarren *susbasta* egin zen irailaren 16an hutsik gelditutako bi postuekin, baina inork ez zituen hartu. Egun horretan udalak egindako ezohiko batzarrean erabaki zen hutsik gelditutako postuak hartu daitezkeela eskaintza zuzena eginez, hasierako prezioan.



ARGAZKIAK: LAURA ELIZAGOIEN

### Lizarietako tradizioaren besta

Irailaren 21ean, eguraldia lagun, hirugarren aldiz Usategietako Tradizioaren besta ospatu zen Lizarietako zelaian, Etxalar eta Sarako Udalek antolaturik. Goizean, Sara eta Etxalarko dozena bat artisauk bere postuak jarri zituzten eta Pirinioetako 10 sarezko usategien informazioa biltzen duen "Usoak Sarean" erakusketa ere ikusgai egon zen, Sarako Ondarea elkartearen eskutik, Etxalarko usategietako ikusentzunezkoarekin batera. Bertzetik, hostoz egindako Pheuilus pertsonaia bereziak ezagutzeko oinezko ibilaldia atera zen. Sarako Saranga musika taldeak animatu zuen goiza. Sarako auzapezak eta Etxalarko alkateak, urteroko hitzarmena berrestu zuten, Etxalarko usategietan sareekin lanean ari zeko Sarako lurra erabiltzeko akordioaren baldintzak sinatuz. Ondotik, Usategietako makila (paleta edo karrotea) botatze txapelketa egin zuten bi herrietako usazaleek, Lizarietako abatatik. Aurtengoan, makila urrunen bota zuena, Sarako Calvet gaztea izan zen (Karrotea 80 metrotara botaz). Taldeka ere saratarak gailendu ziren. Etxalar eta Sarako dantzariak ere ikuskizun ederra eskaini zuten. 14:30ak aldera bazkaria egin zuten 320 lagun inguruk eta bestarako espreski egindako painuluak ere banatu ziren. Besta ilunabarra arte luzatu zen eta konten agertu dira antolatzaileak.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

### Giro ederrean joan dira Urritzokietako bestak

Hiru egunetan ospatu dituzte bestak Urritzokietan auzokoek. Eguraldi ederra lagun, jende aunitzek parte hartu zuen ekitaldian eta gustora gelditu dira auzotarrak hurrengo urteko besten esperoan.

**USOA**  
Nekazari kooperatiba

- Bertan egindako pertsuak, bertze markak eta ekologikoak
- Ongarriak - Burdin tresnak
- Insektizidak - Edarriak - Haziak
- Botikak (jerezaterekin)

Etxez etxeko banaketa egiten da  
Kalefakzioa eta ibilgailuendako gasolioa

Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 • ETXALAR

**ERREKALDE**  
PLATER KONTAKTUAZ  
DUTZAK  
KONTAKTUAZ

TFONA: 948 630 259 BERA

**Javier Manterola**  
Tolako instalatzailea  
Iturgintza • gasa  
kalifikazioa

Tfona: 629449602 • BERA



OSPAKIZUNAK → BESTEN AITZINEKO ASTEBURUA

## Juan Mihura eta 'Gringo' nagusi Artzain Zakur Txapelketan

Elusta inguruan egin da lehen aldiz, zortzi artzain eta zakurrekin

go Turistikoaren ordezkari eta Mari Joxe Iparragirre Hiruak Bat Landetxe Elkarteko presidentea izan ziren.

### XI. GAZTA LEHIAKETA

Artzain Zakur lehiaketaz gain, besten aitzineko asteburua ekitaldiz betea joan zen. Igande eguerdian, XI. Gazta Lehiaketa egin zen. Hamar gazta aurkeztu ziren eta horien artean, Antsoneberriko Enkarnita Etxeberriak aurkeztutakoak lortu zuen lehen saria. Bigarren saria Argarategaraioko Elena Retegik eskuratu zuen eta hirugarrena Argarateberek Mari Jo-



se Lizardik.

Artzain Zakur Txapelketaren ondotik, berriaz, kankailuak eta buruhandiak Lesakako trikitixa taldearekin batera ibili ziren, eta gero, gazta eta opil dastaketan ere beraien musika-rekin alaitu zuten giroa.

### UTZITAKO ARGAZKIAK

Goiko argazkian Gazta Lehiaketako hiru sarituak, eta beheko argazkian Juan Mihura Artzain Zakur Txapelketako irabazlea, Gringo bere zakurrarekin.



### TTIPI-TTAPA

XXXIV. aldiz Artzain Zakur Txapelketa egin zen irailaren 21ean. Aurtan, gainera, leku berrian egin zen, Elustan eta Meakaunditik herri-gunera ekarriz, jende gehiago bildu zen.

Guztien artean, Heletako Juan Mihura nagusitu zen, Gringo zakurrarekin (223 puntu). Mikel Aizpurua izan zen bigarren, Xuker zakurrarekin (220 puntu) eta Amaiurko Felix Irigoien hirugarren gelditu zen, Perla zakurrarekin (209 puntu).

Ondotik sailkatu ziren Mikel Garaiar Lukirekin, Pello Segurola Argirekin, Joxe Mari Istilart Lagunekin, Jorge Oteiza oronoztarra Arakilekin eta Aitor Tato Argirekin.

Sari banaketan, Lourdes Ibarluzea eta Imanol Retegi, alkate eta zinegotzia, Amets Inda Bertizko Partzuer-

**F. LANCHAS**  
Akudolalorea eta hermitatzailea  
Parket eta parket flotatzailea  
Jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

**JOSE AGERRE**  
pinturak

**PINTURA LANAK OROKORREAN**

Kanpo eta barneko pintura  
Barnizatze eta lakatzeak  
Parket Flotatzailea jartzen dugu

610 221 528  
BERRIZAUN

**LA VILLA**  
JATETXEA

Ortzirala, larunbata eta igandetan afariak

K. Nagusia, 14 - IGANTZI (Nafarroa)  
T. 948 637 290

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttipi.ttapa

## ARANTZA

KIROLA → IRAILAREN 21EAN

# Uharte Arakil-Beriain KM Bertikalean 3. Mikel Alzuri

Mendi lasterketa proba gogorrean 199 korrikalarik parte hartu dute

## Nerea ALTZURI

Oraingoan podiuma zanpatu du. Mikel Alzuri Apezetxeak joan den irailaren 21ean Sakanaldean hirugarren postua lortu zuen mendi lasterketan. Aralar Mendi klubak antolaturiko Arakil-Beriain Seiigarren Km Bertikala 00:44:42an egitea lortu zuen. Eguraldi zoragarria lagun, ia 200 korrikalarik parte hartu zuten proban. Saio ikusgarri bezain gogorra da, bortz kilometro kronometratuak, 1.023 metroko desnibela eta ikaragarritzko maldak, %70koak tartean. Giro izugarria izan omen zen herrietan nola mendi inguruetan parte hartzaileak animatzen. Nafarroako mendi lasterketen koparako baliagarria zen proba hau. Joan den

apirilean Mikelek egin-dako proben berri eta zerk lasterkaldi aurrakusten zituena adierazi genizuen... Urte osoan ez da gelditu eta honako hau ere, bere lan eta esfortzuen sari haundia izan da. Zorionak Mikel!

## Zahar Txokotik

Dakizuen bezala, Zahar Txokok etxeko-etxeko bazkari zerbitzua eskaintzen du. Zerbitzu horren erabiltzaileak lau euro ordaintzen du bazkari eta Zahar Txokok euro erdiko laguntza jartzen du bazkari bakoitzeko. Urtean zehar eskaintzen den bazkari kopurua kontuan hartuz, Zahar Txokok bimila euro jartzen ditu. Aurten, zerbitzu honek La Caixaren 2.000 euroko diru-laguntza jaso du.

## Adriatikoko barna oporraldia

Urteroko bidaiari taldeak oporraldia antolatu du. Heldu den udaberrian izan arren, aitzinetik prestaketa lanak egitea ezinbertzekoa da.

Ekainaren 14tik 21era, Adriatikoko Itsasoan barna kruzeroa egingen dute.

Ekainaren 14an, autobusean Madrilgo Barajas aireportura joan dira. Handik hegazkinez Venecia izanen dute helmuga. Adriatikoko kruzeroaren ibilbideari dagokionez, Venecia, Bari (Italia), Katakolon, Santorini, El Pireo eta Corfu (Grezia), Kotor (Montenegro) eta Venecia.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mikel Alzuri, podiumaren hirugarren kokan.

Bidaiaren prezioari dagokionez, barruko gela edo kamarotea hartuz gero, 1.350 euro eta kanpokaldekoa nahi bada, 1.456 euro. Gehienez ere 54 bidaiarik izen eman dezakete. Izen-ematea urriaren 15 arte egin daiteke Caixan, betiko kontuan 300 euro aitzineratuz. Kanpokaldeko ge-

la aukeratzeko dutenek, prezio osagarria aldi berean ordaindu beharko dute. Edozein zalantza argitzeko, 948 634030 telefonora dei daiteke (Martin Legarra).

Bidaiaren inguruan solasteko, heldu den urteko maiatzaren 31n 18:00etan bilera izanen da Zahar Txokon.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Xirrindulariak Katalunia aldean

Batzuentzat lehendabiziko aldia... bertzeentzat urteetako esperientzia... Irailaren hasiera ailegatu orduko, bizikleta hartu eta kilometro mordoak egiten dituzte zaletu aunitzek. Aurten, Xabi Leiza, Zugarramurdi eta Iturria, Imanol Lukanbio eta Mitxelena; Jon Aguilera, Dani Iparragirre eta Jaime Iturriak Llançatik Vielhara 520 kilometro egin dituzte. Transpirenaika osatu dute, 2012an Vielha-Arantza, 500 kilometroko ibilbidea eginga baitute batzuek. Hori sasoia!!

**zalain**  
JATZETEA - RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g  
31780 Bera  
t. 948 631 106  
www.zalainjatebetea.com

**zalain**

**Alberto RETEGI**  
abokatu  
abokatu  
t. 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

**BERA** Zere ingurua klase guzietako insektuz (xomorro, zinoera, armiarma, kukuxu...) eta orratzi xagutzar garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipen tratamenduak

**GOIEKO** Industria Garbitasun Produktuak  
Tel: 948 625 697 • Zalain, 42 A • BERA

**XAGU**  
LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232  
Koskontako bidea, 7  
(osatu-zentroaren parean)  
31770 LESAKA

- LIBURUDENDA
- INDUSTRIAL FOTOKOPIA
- USBUA EGINDAKO IMPRIMATARI
- ESKAKERAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAREN MATERIALA
- BULEGURUAREN MATERIALA
- EGURKARAK, ALDEKARRAK



**BORTZIRIAK** → EUSKARA MANKOMUNITATEAREN DEIA

# Bortzirietako hizkera aztertzeke boluntarioak behar dira

Lana auzolanean eginen dute eta interesatuen datuak urriaren 3ra arte bilduko dituzte

Mankomunitatekoek. Norbaitek lan horretan aritzeko interesa eta gogoia izaten ahal duen jendea ezagutuz gero,

Mankomunitetera jo dezake eta haien berri eman, izena, telefonoa eta e-posta utziz. Datuak telefonoz (948

634125) edo e-postara idatzita ([euskara@bortziriak.org](mailto:euskara@bortziriak.org)) eman daitezke, urriaren 3a baino lehen.

## URROZ

Hiru puntuko lurrikara izan da

### Joseba URROTZ

Irailaren 17an, seguraski lurrikara bat nabaritu izanen zenuen aunitzek gure inguruan. IGN Espainiako Geografia Institutuaren arabera, epizentroatik Urrozko dermioan izan zen, nahiz eta koordentatuak begiratu gero, puntu hori Oizko lurretan egon. Ulertzeko moduan, Leurtzako erregitiki Oizko mendien muga aldeira. Euskal Herrian lurrikarak pilatzen diren hainbat lerro dago, failak alegia, eta haietako bat da Lizarran-Elizondo deitzen dena; kontua da, bi herri horien arteko lerroan dagoela azken lurrikara honen epizentroatik. 3,1eko indarra izan zuen, eta 3 kilometroko sakoneran, ez da larritzeke modukoa baina bai indar dezenteakoa. Azken boladan Nafarroako lerro honen akribitate handi xamarra omen du. Baina ez ahal da gehiegi zakartuko.

## Bai Euskarari ziurtagiria dutenentzako diru-laguntza deialdia egin dute



Bortzirietako Euskara Mankomunitateak 2014an Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu edota konpromisoak berriro dituzten eragileentzako diru-laguntza deialdia onartu du. Diru-laguntza eskuratu ahal izateko beharrezkoa da aurrean Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu izatea edo, lehenagotik izanez gero, konpromisoak berriro izatea. Interesatuak azaroaren 21a baino lehen aurkeztu beharko dute dokumentazioa, Euskara Mankomunitatean. Zehazki, eskaera orria behar bezala beteta eta Mankomunitateak emandako ereduaren arabera, IFZ txartelaren fotokopia eta Bai Euskarari Elkarteari ordaindutako fakturaren fotokopia (2014koa) eta ordainagiriaren fotokopia aurkeztu beharko dituzte. Aipatutako epea bukatutakoan, Mankomunitateak jasotako eskaerak baldintza guztiak betetzen dituzten begiratu du, eta horren arabera diru-laguntzak banatzea ebaziko du. Baldintzak betetzen dituen eskatzaile bakoitzak jasoko duen diru-laguntza 42,50 eurokoa izanen da, hau da, Bai Euskarari Elkarteak ziurtagiriarengatik ezarria duen oinarritzako prezioaren % 50. Deialdiaren oinarriak Mankomunitatearen web orrian begira daitezke, [www.bortziriak.org](http://www.bortziriak.org) atarian.

### TTIPI-TTAPA

Bortzirietako hizkeraren ezaugarriak bilzen eta aztertzen hasi nahi du Bortzirietako Euskara Mankomunitateak. Adierazi dutenez, hasiera batean ezaugarri horiek bildu eta aztertzeke asmoa dute, eta ondotik erabakiko dute egindako lana nola argitaratu eta ezagutzera eman.

Lan hori auzolanean eginen dutela jakinarazi dute Mankomunitateak eta hala, horretan aritzeko prest diren zentzura osatu nahi dute. «Izan daitezke filologoak, euskara irakasleak edota bertzerik gabe horrelako gaiak gustukoak dituzten herritarak», diote Euskara

**ORBELA**  
BEINTZAKO OSTATUA  
Idoa - Mikel  
Tel: 948 450 014  
BEINTZA-LABAREN  
[www.ORBELA-beintza.com](http://www.ORBELA-beintza.com)

**PPSOE,**  
Euskal  
Telebista  
digitala  
Nafarroan  
orain!  
Berria erosi taldea

**LIZUN**  
GAZTANDEGIA  
Sunbilla - Tel: 948 450 862

**ARTEKARI TALDEA**  
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Eibaritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegaitasun planak eta aurrekontuak

[artekari@artekari.com](mailto:artekari@artekari.com)  
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

# SUNBILLA



UTZITAKO ARGAZKIA

Iker Mariezkurrena eta Agoitz Irazoki lesakarra, trofeoarekin.

**KIROLA** → HERRIKO ARRAUNLARIA

## Arraun Ligako txapeldun izan da Iker Mariezkurrena Hondarribiarekin

**Maidar PETRIRENA**

Irailaren 21ean akitu zen Arraunean San Migel Liga eta Hondarribiako taldea izan zen txapelduna. Nola ez, taldekideen artetik aipamen berezia eginen diogu Iker Mariezkurrena herritarrari. Argazkian ikus daiteke zeinen pozik hartu zuten irabazitako kopa. Zorionak guztioi eta bereziki Ikerri.

Kirol kontuekin segituz, irailaren 21ean Eneko eta Koldo Herrera anaiek Rural Kutzak antolatutako azken karrera izan zuten Arazurin. Koldo bertze lagun batekin bizkarretik hartua lehen postuan helmugaratu zen. Enekorri,

berriz, 3. postuan zihola gurpila zulatu eta azkenean 4. postuan bukatu zuen bai karrera baita sailkapen orokorra ere. Irailaren 28an Diario de Navarrak antolatutako lehen karrera Logroñon izan dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Eneko Herrera, Arazuriko lasterketan.



ARGAZKIA: LEIRE HUALDE

### Lehen aldiz eskolan

Lehen aldiz eskolan hasi diren neska-mutikoak ageri dira, Leire Hualde irakaslearekin. Goian eta ezkerretik hasita, Yuliana, Argia, Aimar, Saioa eta Sara. Beheitian, berriz, Leire irakaslea, Hegoa, Iker, June eta Nahia



ARGAZKIA: BIDAD IBARRA

### Ulibeltzak mendi taldea Atxuriara

Irailaren 14an Ulibeltzak Mendi Taldeak Atxuriara irteera egin zuen. Kuadrilla elkartua eta ongi pasatzeko aukera izan zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Dantza taldearen ateraldiak

Herriko dantzariak hainbat irteera egin dituzte udan. Azkenak Arraioz (argazkian) eta Elbetera izan dira.

**6**  
LOTE  
ZOKKETATUKO  
DITUGU  
urtean zehar

**MARTIKO**

Zelai Ind. (31780) | BERA  
T 948 625 016 | F 948 625 036  
martiko@martiko.com  
www.martiko.com



KULTURA → LAUGARREN DENBORALDIA

## Zine sasoia urriaren 12an hasiko da

‘Ocho apellidos vascos’ filma ikusgai izanen da zineman

Marga ERDOZAIN

Los Muppets eta Ocho apellidos vascos filmek emanen diote aurtentzen zinemaldiari hasiera urriaren 12an. Laugarren ikasturtea da Erreka eta Mendaur guraso elkarrekin herriko kulturari buruzko eman nahian zine emanaldiak antolatzen dutela. Denboraldia aurreratu dute aurtentzen (azaroan hasten baitziren) eta Aste Santuan akitzeko asmoa dute. Beraz, ia sei hilabetez hamaibortzero bi pelikula, 16:30ean eta 18:30ean pantailaratuko dira. Osozara 24 edo 26 pelikula ikusteko aukera izanen da euro baten truke. Ekimen hau aurrera ateratu ahal izateko Burrunbak utzitako ekipo teknikoak erabiltzen da, publikitatea eta kartela Doneztebarrak Merkataria eta Zerbitzu Elkartearen diru-laguntzari esker egiten da eta Udalak egoitza erabiltzea baimentzen du. Horretaz gain eta batez ere, hainbat gurasoen inplikazioa ezinbertzekoa da emanaldi hauek burutu ahal izateko: txandak, bilerak, zine aretoaren garbiketa... Lortutako dirua, beste urtetan egin den bezala (proiektore berria, elikagai bankua, Enaitzen aldeko kanpaina...), ekipo teknikoan hobekuntzak egiteko eta hainbat ekimen

solidario edo aisialdiko ekitaldiak antolatzeko erabiliko da.

### Mus txapelketa El Cafe ostatuan

Duela hamarkada batzuk halako arrakasta izaten zuena berreskuratzen nahiz urriaren 11n mus txapelketa antolatu dute El Café ostatuan. 600 euroko sari potoloa izanen da irabazlearentzako, baina parte-hartzaile guzietan banatzen izanen dute eta gero beste DJarekin. Izen ematea 10 euro ordaindu behar da.

### Ba al zenekien

**Eskozian bizi den doneztebar batek irailaren 18an ospatzen erreferendumean bozkatu duela eta bere testigantzak eduki ailegatu zaizkugula hainbat komunikabidei esker. Hi haiz hi, Imanol, enbaxadore mundiala!**



UTZITAKO ARGAZKIA

### Patxi Olazar txapelkun, San Miguel eta Ezkurra II azpitxapelkun

Irailaren 21ean jokatu zen Zubirin Nafarroako bederatzigarren erremonte txapelketa-Magna Sari Nagusiko finala. Partida bikainaren ondoren Etxeberría IV eta Patxi Olazarrek 36-40 irabazi zieten Ezkurra II eta Julen San Migueli.

### APUNTATZEKO EPEA URRIAREN 8AN AKITUKO DA

## Malerrekako Guraso Eskola antolatu da

M. ERDOZAIN

Malerrekako Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak guraso eskola martxan paratzeko asmoa du, guraso izatearen esperientziak dakarren aspektu nagusien inguruan hausnartzeko eta seme-alaben hezkuntzan lagungarriak diren gaitasunak eskuratzeko aukera sortuz. Lehendabiziko aldia da horrelako eskola Malerrekako izateko aukera badagoela. Eskola hau goizez, 10:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 19:00etara antolatuko da eta data hauek: urriaren 15 eta 29an, azaroaren 12 eta 26an eta abenduaren 10ean. Topaketak Malerrekako Mankomunitatean egingen dira eta Mirentxu Goietxe, terapeuta eta gizarte langileak zuzenduko ditu. Eskola honetan

parte hartu ahal izateko 948 451746 telefonora deitu behar da edo [ssbdoneztebe@malerreka.infolocal.org](mailto:ssbdoneztebe@malerreka.infolocal.org) helbidera idatzi. 10 orduko jardura honen truke 15 euro ordaindu behar dituzte, epea urriaren 8an akituko da.

Eskola honen helburuak honako hauek lirateke: amatasuna eta aitasuna ulertu; heziketa estilo desberdinen inguruan hausnartu; gure seme-alabekiko harremanak hobetzeko tresnak eskuratu; adin bakoitzaren bilakaera psikologikoa ezagutu... Eskola horretan landuko diren edukinak, berriz, abiapuntu hauek izanen dituzte: guraso izatea erronka eta ardurarik garrantzitsuenetarikoa dela ohartaraztea; seme-alaben arteko harremana nola eraiki: maitasuna, komunikazioa, segurtasuna...

## ZUBIETA

OSPAKIZUNA → URRIAREN 11N

# Eñaut Elorrieta ariko da kantari Euskararen Egunean

Bazkarirako txartelak hilaren 3rako hartu behar dira

### Fermin ETXEKOLONEA

Herriko gazteek antolatutako Euskararen Egunak bi egun hartuko ditu aurten ere, urriaren 10 eta 11. Base-ritarrez jantzita etortzera ere animatu dute.

### OSTIRALA, URRIAK 10

- 18:30ean Pintxo lehiaketa Errandonea ostatuan.
- 20:00etan hitzaldia herriko estalpean:

*Agoteak Zubietan ere!*

- 22:00etan Mus txapelketa Errandonea ostatuan.
- 23:00etan kontzertua Guajiroen eskutik.

### LARUNBATA, URRIAK 11 EUSKARAREN EGUNA

- 10:00etan hasita, artisauek egongo dira plaza inguruan. Gazta eta urdaiazpikoaren postua ere jarriko da, jendeak pisua asmatzeko apostua egin dezan.
- 10:00etan zaldi itzulia.
- 10:30ean trikitilarien itzulia herrian barna.
- 11:00etan joaldunak.
- 12:30ean herri kirolak.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Urdaiazpiko eta gaztaren pisua asmatzeko apostuak ikusmina piztuko du aurten ere.

- 14:00etan bertso bazkaria Agin Laburu eta Jexux Mari Irazurekin. Ondotik herriari buelta. Bazkarirako bi menu izanen dira, haurrentzat eta helduentzat. Txartelak Santxo okindegian eta Errandonea ostatuan hartzeko epea urriaren 3an akituko da. Helduek 25 euro eta haurrek 12,5 euro ordaindu beharko dute. Jendeak erne egon beharko du, *catering*

- zerbitzua denez, egun horretatik aitzinera ez baita txartelik izanen.
- 17:00etan haur jokopak.
- 19:30ean Muxikoak.
- 20:00etan gazta eta urdaiazpikoaren zozketa.
- 20:30ean Eñaut Elorrieta plazan.
- 00:00etan ESTU&LARRI plazan eta ondotik gaupasa OHAR-KABE taldearekin. Kontzertuetako sarre-  
ra: borondatea!

### URRIAREN 10EAN

Herriko Ostataua berriz zabalik

### F. ETXEKOLONEA

Udalak enkantean atara ondotik, Herriko Ostataua berriz irekitzeko asmoa dute Txelo Un-sain eta Angelita Otxandorenak. Hiru urterako hartu dute eta ea zortea duten. Euskararen Eguneko ostiralean irekitzeko asmoa dute.

## ELGORRIAGA

GIZARTEA → LEHEN ALDIZ DOAZ ESKOLARA

# Herriko lau haur hasi dira aurten Doneztebeko eskolan

Ehiztariak ere sasoia prestatzen dabilta buru-belarri

### Mattin LARRALDE

Aurten lau haur berri hasi dira Doneztebe-

ko eskolan: Aimar, Sara, Jokin eta Elaia. Gustora pasa dezatela.

### Ehiztariak

Tenore honetan, mugitzen hasiak dira ehiztariak, mendia garbitzen edo puestoak egiten edo berritzen, urtero bezala urriua pres-

tatzen. Usoak ez daki-gu pasatuko diren, baina gosari batzuk behintzat eroriko dira ziur.

### Malerreka kantuz

Urriaren 4an herrian egingen da Malerreka Kantuz. Plazan 12:00etan bildu eta herria kantuz zeharkatuko dute.



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Herriko mendi inguruetara hurbilduko dira ehiztariak.



**KIROLA** → LEHEN MAILAKO TXAPELKETA

## Nafarroako txapelketa nagusiko finalean ariko da igandean Erasun

Euskal Herrikoan finaleko atean gelditu da

### Arkaitz MINDEGIA

Nafarroako Lehen Mailako Aizkolari Txapelketako finalean izanen dugu Ander Erasun. Uhartan irailaren 21ean jokatu zen kanporaketa eta laugarren gelditu zen. Honela, Etxarri-Aranatzen igande honetan, urriak 5, jokatuko den finalerako txartela lortu zuen. Nahiz eta Euskal Herriko Txapelketan kanpoan gelditu den 20 segundogatik, Nafarroako txapelketako finalekin udari edo urteari bukae-

ra ona ematen ari zaio, udan han eta hemen txapelketa edo erakustaldi guztietan maila ona erakusten aritu baita.

### Plater tiroketa

Hasi da ehiza denboraldia eta ehiztariak horixe dabilta han eta hemen. Lehenagotik, halerre, punteria zorrozteko Iturengo bestetan eguraldiagatik atzeratu zen plater tiroketa txapelketa jokatu zuten irail hasieran. Imanol Bazterrika gelditu zen lehena, bigarren Ixidro Bazterrika eta hirugarren Axier Apeztegia.

### Jabier Sein

Lasterketen denboraldia akitu du Jabier Seinnek. Bai Euskadiko txa-



UTZITAKO ARGAZKIA

### Joaldunen Eguna umore eta giro onean

Joaldunen Eguneako ekitaldi guztiak ederki atera ziren, baita tartean izandako sorpresak ere. Goiz-goiz hasi ziren joare soinuak somatzen. Ameztian barrena ibili ziren herrira itzuli aitzinetik. Aizkolariak saio polita eskaini zuten eta bertsolariak ere aritu ziren lanean. Segidan 180 lagun inguru bildu ziren bazkaltzeko. Arratsaldeko bertso eta musika soinuekin goizalderarte segitu zuten beste giroan, tartean berriz ere joareak jarriz eta herriari buelta emanez. Antolatzaileek omenaldi ttiki bat ere egin zioten Jose Martin Bereau joaldun zaharrari, hainbertze urtez joareak jarriz ibili baita joaldunen taldean. Aurrekoa dantzatu zioten eta bertsoarekin batera bere argazki bat oparitu zioten.

pelketan eta bai Rural Kutxan ere, bietan sailkapen orokorrean lider gelditu da jubeniletan.

### Sanmartinak

Aurtitzen sanmartinen usaia somatzen da, guttiago falta baita urteroko hitzordurako. Dagoeneko bileretan hasiak di-

ra eta eskertzekoa da herriarren parte-hartzea. Zuen agendetan apuntatzeko aurtengo bestak azaroaren 7tik 10era izanen dira. Aurrerago emanen ditugu xehetasunak.

### Ikastaroak

Hainbat ikastaro antolatu dituzte herrian.

Zunba, adibidez, ortzegin ilunabarretan izaten da eta joskintzakoa Blankik ematen du. Informazioa udaletxean dago. Bertzalde, urrian hasiko dira aurreko aleetan aipaturiko Kenpo kai eta trikitixa eta pandero ikastaroak. Hauetan oraindik ere apuntatzen ahal da.

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**UDAZKEN - NEGUKO KOLEKZIO BERRIA**

edredoi fundak - albornoak - edredoi nordikoak - ohe eskuilakak - maindireak - mantelak - kuxinak - toailak  
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

# MALERREKA

KULTURA → URRIAN LAU EMANALDI

## Malerrekako Kultur Ibilbidea ekitaldiz gainezka dator

Urriaren 4an Beira taldeak joko du Sunbillako Ariztigain kanpinean eta hilaren 11n Imuntzo eta Belokik Elgorriagan

eginen da.

Urriaren 4an, larunbata 19:30ean Beira taldea izanen da Sunbillako Ariztigain kanpinean. Jon Martin bertsolariak eta Igor Arruabarrena gitarra joleak osatzen dute Beira eta musikaturako bertsoak eskaintzen dituzte. Aurtun 800 dukado Sunbillako emakumezkoen maratoiaren kantua konposatu dute.

Urriaren 11n, Imuntzo eta Beloki ariko dira 17:00etan Elgorriagan. Trikitilari eta panderojolearen emanaldiaz gain, eguerdian gaztagintza erakusketa bat egingen da eta 14:00etan herri bazkaria egonen da.

Urriaren 18an, Mikel Markez eta Erramun Martikorenak kantaldia eskainiko dute Beintza-Labaiengo elizan 19:00etan hasita. Beiralaundi ezberdinetako-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Beira taldearekin abiatuko da Malerrekako Kultur Ibilbidea larunbatean Sunbillan. Urriaren 18an, Mikel Markez eta Erramun Martikorena kantuz ariko dira Beintza-Labaienen.

ak badira ere, taulak batu ditu Mikel Markez eta Erramun Martikorena. Oharkabea, hau da, «elkarrekin kontzertuak ematen hasiko gara» erran gabe egin dute bat, adierazi izan dute-enez.

Urriaren 25ean, azkenik, Kiki, Koko eta Moko pailazoak ariko dira Urrozko frontoian 17:00etan.

### MALERREKA KANTUZ

Udazkenarekin batera Malerreka Kantuz

abian jarri du berriz Malerrekako Mankomunitateak. Urriaren 4an, larunbata, eguerdiko 12:00etan Elgorriagako karriketan barna ibiliko dira kantuan kantuzaleak. Saioa herriko plaza hasiko da.



**HORMIGOI ETA ZUREZKO EGITURA  
DUTEN ETXEBIZITZEN PROIEKTU ETA  
ZUZENDARITZA TEKNIKOA**

**Fernando Orset Mauleon** arkitektura  
Frain Auzoa, 27 IGANTZI 615 700 007

**APARAN, S.A.**  
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagaiak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080

Fax: 948 450 334

**DONEZTEBE**



KULTURA → ARKUPEAK ELKARTEAREN KURTSOAK

# 300 bazkide baino gehiago hasiko dira ikastaro ezberdinetan

Leitzan, Goizuetan, Donezteben, Elizondon eta Urdazubin yoga eskainiko da aurten ere

## TTIPI-TTAPA

Arkupeak elkarteak antolatutako hamabi ikastaroetan izen emateko epea irailaren 19an akitu zen. Horietako batzuetan Nafarroako Gobernuaren eta La Cai-xaren babesa eta laguntza izanen da. Arkupeak elkarteko 239 bazkidek eman dute izena ikastaroetan. Aipatzekoa da informatika ikastaroetan 47 lagun apuntatu direla, 32 memoria tailerrean, 29 Irribarre batez esnatu ikastarorako, beste horrenbeste argazkilaritzakoa, 23 frantses ikastaroan, 19 Aktiba zaitez ikastaroan, 18 eskulan eta lorezaintza ikastaroan, 17 altzarien zaharberritzean... Gogoratu behar da hainbat bazkide Leitzan, Goizuetan, Donezteben, Elizondon eta Urdazubin eginen den yoga ikastaroan ere hasiko direla. Denera, 300 bazkide baino gehiago hasiko dira ikastaro ezberdinetan.

## Bidaiak hara eta hona

Irailaren 8 eta 9an, Arkupeak elkarteko bi bazkide talde Europako Inperioetako hirietara abiatu ziren, Praga, Budapest eta Viena ikusteko asmoarekin. Toki asko zituzten bisitatzeko eta eguna zitzuan joaten zitzaizen, baina halere oso pozik bueltatu ziren, bidaia osoan izan zuten giro ederrarekin.

Irailaren 14an, berriz, beste urte batez Lezoko Santo Kristo bestera hurbildu ziren 158 bazkide. Mezaren ondotik herri kirol saioa ikusi ahal izan zuten, harrijasotzaile eta aizkolariekin. Lezotik Hondarribiarako bidea hartu zuten, Ardora jatetxean bazkaltzeko eta ondotik, Joxe Angelen akordeoiaren doinupean dantzatu zuten.

Irailaren 29an, azkenik, 90 bazkide Benidormera joan ziren, hamabi egunez hango tenperatura goxo eta hondartzetaz gozatzera.

Urriari dagokionez, hilaren 16an ohiko bazkideen besta eginen du Arkupeak elkarteak, 85 urte bete dituztenei eta 50 urte ezkondurik egin duten bikoteei omenaldia eskainiz. Hau idazterakoan 467 bazki-



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Goitik behera, Arkupeak elkarteko bazkideak Santiago Bidean; Europako hiri inperialetara egindako bidaian eta Lezoko ateraldiaren ondotik, Hondarribian bazkaltzen.

dek emana dute izena egun horretarako, baina oraindik bada apuntatzeko denbora. Lizarra eta Lodosarako bidaiak ere hor daude.

## Santiago Bidea

Santiago Bidea egiten ari diren bi taldeak bu-

eltan dira. Horietako batek, hamabi bazkide biltzen dituenak, ibilbide guztia osatu zuen irailaren 27an. Hori ziurtatzen duen diploma jaso, santua besarkatu eta ingurua bisitatu ondotik, kontent bueltatu ziren norbera bere etxera.

Hamar laguneko beste taldeari oraindik azken etapak falta zaizkio, eta heldu den urteko maritxean segitzeko asmoa dute. Momentuz Cruz de Ferroraino ailegatu ziren eta irailaren 22an etorri ziren bueltan.

## EZKURRA



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Eskuinean Maingonearen lehengo irudia, eta ezkerrean oraingoa.

GIZARTEA → EGOERA KAXKARREAN ZEGOELA ETA

# Maingoneako teilatua eta pareten zati handia bota dituzte

1678ko agiri batean ageri da lehenengoz etxea

## Fernando ETXEBERRIA

Denbora luzez egoera kaxkarrean egon da Maingonea eta orain, teilatua eta pareten zati handi bat botatzea erabaki dute herritik kanpo bizi diren nagusiek, goiko argazkian ageri denez.

Ezurrako etxe, baserri eta borden argazki bilduma liburuan etxe honen istoriaren laburpena ageri da. Lehen aldiz 1678ko urtarrilaren 9ko agiri batean agertzen da, orduan herriak zituen beste etxebizitzekin batera. Berezko izena Marijuangorena zen eta Miguel Miquelarena zen jabea. 1726an Maringorena izenarekin ageri da eta Juan Miquelarena da. Urtebete lehenago, arrosarioko kofradiaren sorrera zela eta, Maingonena izenarekin izendatzen dute eta kofra-



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA


## Ezkontza udaletxean

Irailaren 20an ezkondu ziren Iban Telletxea herritarra eta Doneztebeko Sandra Telletxea, udaletxean Julián alkateak gidatutako ospakizunean. Ondotik, Hondarribiako Beko Errota jatetxean ederki bazkaldu zuten. Zorionak bie!

diako bazkide bat zen nagusia. 1864-1865, 1895 eta 1913ko agiri-tan Maingonea izenarekin ageri da. Azkenik, 1924 eta 2008ko pape-retan gaur eguneko izenarekin ageri da: Maingonea.

## Uso ehiza

Txantxangorri elkar-teko bazkideek lokalean egindako batzarrean kontuak onartu zituzten eta bidean eta uso ehiza postuen ego-kitzapen lanak egitea erabaki zuten. Orain



eguraldiak laguntzea eta usoak ere gure mendietatik pasatzeko borondatea izatea bakarrik falta da.

## Egur loteak

Hasiera batean bazirudien udazkena hasi orduko egur loteak etxeetan egonen zirela, baina ez da posible izan, bidean egoera kaxkarrak dela eta arazo handiak izan baitituzte zuhaitzak behar den tokira eramateko. Hau idazterakoan, zati txiki bat bakarrik eraman ahal izan dute toki egokira, handik gero etxeetara eraman ahal izateko.

## GIZARTEA

## EUSKARA

Solaslaguna egitasmoa abiatuko da aurten ere

## TTIPI-TTAPA

Dagoeneko martxan da ikasturte honetan ere Solaslaguna egitasmoa, euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak eta mintzapraktika egin nahi duten pertsonak biltzeko doako programa. Talde txikietan (normalean launaka edo bosnaka), astean behin eta gutxienez ordu betez bildu ohi dira. Malerrekako, Bortzirietako eta Baztango Solaslaguna 2007an sortu zen.

Solaslaguna bezalako programetan parte hartzen dutenek euskara maila hobetzeaz gain, gehiagotan erabiltzen dute eta ongi pasatzen dute. Jardu-osa osagarriak ere egiten dituzte, hala nola eskualdeko gainontzeko solaslagun taldeekin irteerak, afariak, kirol ekintzak, Mintza Eguna...

2013-14 ikasturtean, Baztan, Bortzirietako eta Malerrekan 87 solaslagunek eman zuten izena eta 17 talde osatu ziren. Horietatik %95ak programan segituko du.

Izen emateko eperik ez da eta nahi denean apunta daiteke. Informazio gehiago Solaslagunaren Txokoan ([solaslaguna@topagunea.org](mailto:solaslaguna@topagunea.org), 610 920673 telefonoan), Bortzirietako, Malerreka eta Baztango euskaltegietan, baita Bortzirietako Euskara Mankomunitatean eta Malerrekako Mankomunitateko eta Baztango Udaleko Euskara Zerbitzuetan.



KULTURA → VIII. EDIZIOA

# Aurrera eguna ospatuko dute urriaren 4an

Bezperan Jeiki abesbatzak kontzertu didaktikoa eskainiko du

**JM BARRIOLA**

Aurrera Elkarteko Kideek egutegian gorritz seinalatua izanen dute urri hasiera. Aurrera Egunaren zortzigarren edizioan, beraiek izanen direlako protagonista egun osoko pestan. Goizeko 09:00etan BTT taldearekin, bizikleta irteera eginen dute estazioetik abiatuta. Ordu berean txistulariek diana eskainiko dute. 10:00etan Aurrerako Kirol Jokoen eskutik futbito partida izanen da plazan. 11:00etatik aurrera berriz hitzordu ugari tirolina, zaldi ibilaldiak eta Aurrerako pilotarien saioa plazan eta Arkixkil futbol zelaian etxeko taldea Berriozar taldearen aurka ariko da.

12:00etan Aurrerako dantzariak saioa eskainiko dute plazan. 13:00etan Incansables txarangarekin poteoan ibili ondotik, karrapean bazkaria. Bazkal ondotik bazkideen ingurutxo eta segidan Eltxetxunjoa. Gero, Incansables Txaranga eta buruhandiekin poteoan ibili eta 21:30ean luntxa eta orkestra gizona arituko da Aurrerako atarian.

## JEIKI ABESBATZAREN KONTZERTUA

Jeiki Leitzako abesbatzak 40 urte daramatza kantuan eta ospatzeko kontzertu didaktikoa eskainiko dute urriaren 3an Leitzako zinean 19:30ean. Kontzertuaz gain, abesbatzaren jarduerak, teknikak eta lanaketak azalduko dizkiete entzuleei eta abenturako prestatzen ari diren kontzertu bereziaren berri ere orduan emanen dute.



ARGAZKIAK: ENERITZ IRAOLA

## Talo egun arrakastatsua

Udazken usainean, ohikoa bihurtu da egutegian Talo Eguna. Irailaren 21ean izan zen aurtengoa, 10. edizioa eta Saralegi eta Villabonatarrek egindako taloak dastatu, artisauen produktuak erosi eta erakusketa eta ikuskizunetzeko aukera izan zen herriko plazan. Plazaolako turismo partzuegoa sortu zenetik 20 urte pasa dira eta Plazaolako trenbidea eraiki zenetik 100 urte, horregatik, horixe izan zen karrapeko erakusketaren gai nagusia. Horretaz gain, baserrietan erabiltzen ziren tresna zaharrak ere jarri zituzten ikusgai. Txikienek ere izan zuten non gozatua: animaliak, gurdi gainean paseoak eta talo tailerrak antolatu zituzten beraientzat. Herri kirolentzat ere izan zen tarte, Kañamares anaien zerratoki bat jarri zuten martxan eta Leitzako neska-mutilak harri tiran aritu zuten. VI. Talo Lehiaketa Julian Zabaleta herritarrek irabazi zuen eta landetxe batean lau pertsonentzako egonaldia eta artisauen produktuen sorta bat ere zozketatu zituzten.



ARGAZKIA: E. IRAOLA

## NAZIOARTEKO HERRIEKIN ELKARTASUNA

### Palestina eta Eskoziari begira

**JM BARRIOLA**

Irailaren 18an, Aurrerako egoitzan, palestinarren egoerari buruzko hitzaldia eskaini zuen Askapenako brigadista batek. Azken aldiko gatazka hurbiletik bizi izan du eta hala bertaratutakoek palestinarrek bizi duten egoera gordinaren berri izan zuten. Ondoren mahai inguruan solasaldi mardula egin zuten eta argi gelditu zen Palestinako lurretan azken 100 urtetan gertatzen ari denak jende askoren kezka eta solidaritatea eragiten dituela. Egun berean, asko izan ziren Eskoziari begira egon zirenak. Independentziaren inguruko galdeketa egin zuten Eskozian eta Leitzako Udalean ere Eskoziako ikurra jarri zuten, herritarrek beren etorkizuna erabakitzeko duten eskubideari babesa adierazteko.

## I. Stock azoka Leitzan

Kaxkabeltza elkarteak stock azoka antolatu zuen plazan irailaren 13 eta 14an. Guztira 11 komertzio hartu zuten parte eta jende ugari ibili zen ikusmiran eta erosketak eginen. Kaxkabeltza Elkarteak oso balorazio ona egin du eta jasotako erantzuna ikusita, hurrengo urtean azoka berriro antolatzea aurreikusten dute.

# GOIZUETA

GIZARTEA → URRIAREN 13TIK AURRERA

## Goxali liburutegi eta ludotekak ere ateak zabalduko ditu

Maialen Huizi eta Zuriñe Lujanbio izanen dira hezitzaileak astelehen eta ostiraletan

lako ikasleekin eta DBHkoekin, irakurketa eta etxeko lanak egiteko. 18:00etatik 19:00-etara, berriz, Joko Tailerrak eginen dituzte LHko 5. eta 6. mailako eta DBHko lehen eta bigarren mailako ikasleek.

Hilabetearen behin egiten diren guraso eta haurren joko tailerrak, berriz, azaroan hasiko dira.

### Ikastaroak

Urriaren 2an bukatuko da eskulan, gimnasia eta soinu meditazio ikastaroetan izen emateko epea. Udaletxera joan behar da horretarako.

### Azienda feria eguna

Azaroaren 29an eginen da azienda feria. Bertan aziendak, esku-lanak, barazkiak eta beste gaiak aurkeztu nahi dituztenek udaletxean eman beharko dute izena urriaren 1etik azaroaren 7ra arte.

### TTIPI-TTAPA

Herriko haurrak hasi dute eskolan ikasturtea, eta laster irekiko ditu ateak Goxali liburutegi-ludotekak ere. Urriaren 13tik aurrera, Maialen Huizi eta Zuriñe Lujanbio hezitzaile berriak astelehen eta ostiraletan bertan izango dira. Astelehenetan, 17:00etatik 18:00etara Joko Tailerrak eginen dituzte Haur Hezkuntzako neska-mutikoentzat eta 18:00etatik 19:00-etara Lehen Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailako ikasleentzat. Ostiraletan, berriz, 17:00etatik 18:00etara liburutegira joanen dira LHko 3., 4., 5. eta 6. mai-

### UNIZ ETA AKIÑOLA INGURUAN

1.178 m<sup>2</sup> herrilur desjabetuko dituzte

### TTIPI-TTAAOA

1.178,78 metro koadro herrilur desjabetzeko baimena eman du Nafarroako Gobernuak. Horietatik 905,10 m<sup>2</sup> Uniz inguruan eta 273,68 m<sup>2</sup> Akiñola inguruan. Desjabetu ondotik, nabe baten erakuntzarako eta borda bat abelzaintza erabilerarako egokitze utziko dira herrilur horiek, urteko kanoa kobratuz. Lurrak mugatu eta beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko du Udalak.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

### Euskal Telebistarako grabaketak

Pagadi famatua eta ETBko kamera eta langileak herrian izan ziren irailaren 23an, saio berri baterako irudiak eta elkarrizketak grabatzen. Tartean, Urrutinek Luis ere aritu zen etxeko balkoian soinua jotzen.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

### Auzo konposta Errekaundin

Zaborra gutxitzeko eta birziklapena bultzatzeko beste aukera bat dugu herrian, Errekaundi inguruan jarri duten auzo-konpostagailuarekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Giro bikaina Iskibiko Euskal Jaian

Eguraldi bikainarekin joan zen Iskibi kanpinoko denboraldi bukaerako Euskal Jaia. Ehun lagun baino gehiago joan ziren taloak jatera. Herri kiroletan ere saltsa egon zen, Patxi Larretxea eta bere neska taldeak jarrita. Beraiek bukatu ondoren, bertako batzuk ere saiatu ziren trontzan.



GIZARTEA → INFORMAZIO GUZTIA ESKURA

## Etxebizitzen inguruko bilera urriaren 9an

Bilera herritarrei zein kanpokoei zuzendua dago

**Juana Mari SAIZAR**

Irailaren 18an egitekoa zuten bilera atzeratu egin dute eta urriaren 9an egingo da iluntzeko 8etan udaletxean. Bileratik irekia izango da, herritar guztiei eta baita herritarrek ez direnei ere zuzendua, beraz interesa duen orori bertaratzeko deia egiten zaio. Bileran etxebizitzaren inguruan jakin beharreko informazio guztia eta zehatza emango da, eta bilera horren ondoren etxebizitzetan apuntatzeko zerrendak irekitzea izango da hurrengo pausoa. Behar den jende kopuruak izena ematen badu etxeak egiten hasiko lirateke.

zendua, beraz interesa duen orori bertaratzeko deia egiten zaio. Bileran etxebizitzaren inguruan jakin beharreko informazio guztia eta zehatza emango da, eta bilera horren ondoren etxebizitzetan apuntatzeko zerrendak irekitzea izango da hurrengo pausoa. Behar den jende kopuruak izena ematen badu etxeak egiten hasiko lirateke.



UTZITAKO ARGAZKIA

Irudian etxebizitza berriek izanen luketen itxura.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Ehiza denboraldia hasi aurreko lanak

Udazkena ate joka etorri orduko, ehiztariak denboraldia prestatzen hasi ohi dira. Lanen artean, postuak txukundu behar izaten dituzte, urri hasierarako dena prest izateko. Gero horietako batzuk enkatean ateratzen dituzte. Aurtengo uso postuen enkanteak irailaren 20an eta 27an egin ziren, baina lerro hauek idaztean bigarren eta azken enkantea egiteko zegoenez ez dakigu azken emaitza zein izan den. Lehenengo asteburuan beti mugimendu guxtiago izaten da, jendea azken astebururako sesteorako erreserbatzen baita. Lehen larunbatean 7.700euro inguru atera ziren eta hurrengo alean izango duzue datu zehatz guztien berri.

### NAZABAL ESKOLAN

## LOMCEri buruzko hitzaldia antolatu dute urriaren 9an

Ikasurte honetan indarrean jarri da LOMCE hezkuntza sistema berria. Oraindik ez dago oso argi gizartean eta eguneroko irakaskuntzan izango duen ondorioa eta horregatik LOMCEren inguruko azalpenak emateko hitzaldi bat antolatu da. Hitzaldia herritar guztiei irekia egongo da, gurasoei eta baita guraso ez direneri ere, izan ere LOMCEk guztioi eragiten digu. Beraz, interesa dutenek hitzordua dute urriaren 9an 17:00etan Nazabal eskolan.

# ARANO

LEITZA → URRIAREN 13TIK AZAROAREN 4RA

## Landa eremuko emakumeen eguna ospatzeko jarduerak

**TTIPI-TTAPA**

Urriaren 15ean ospatuko da Landa Eremuko Emakumeen Eguna. Hori dela eta, Leitzaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak erakusketa, dokumental emanaldia eta mahai ingurua antolatu ditu. Urriaren 13an 19:00etan, irekiko dituzte ateak erakusketak. *Diruaren sexu ezkutua* izenburupean, 50 diru-zorrok eta emakumeen testigantzek osatzen dute erakusketa. Erakusketa, urriaren 13tik azaroaren 4ra, astelehenera ostiralera egonen da zabalik, 09:00etatik 14:00 etara. Erakusketa irekitzeko, *Larre motzetik* dokumentalaren emanaldia prestatu dute. Haurralde Fundazioa eta Malen Etxea-ren eskutik, Euskal Herriko garapenean lagundu duten emakume ezezagunen istorioak ezagutzeko aukera izanen da. Mahai ingurua ere egitekoa dute, baina hau idazterakoan eguna eta ordua oraindik zehaztu gabe zeuden. Aurreratu digutenez, zonaldeko emakumeek beraien bizipenak kontatuko dituzte.

GIZARTEA → EHIZA SASOIA

## Ehiztariak denboraldi berrirako prest



ARGAZKIA: JOXAN  
Makina Errekalkon lanean.

**Ainhoa ANSA**

Azken asteotan denboraldi berrirako hainbat lan egiten ibili dira ehiztariak. Pistak konpondu dituzte, urbideak egin...

Besteak beste, Matitxolatik Errekalkora, eta Errekalkotik Unamunoko atakarako zatian aritu dira, baita San Migel Soronere. Ehiza postuak, be-

rriz, urriaren 1erako prest utzi beharrak zituzten. Behin denboraldia hasita, ehiza elkartetik oharra, postuak garbi mantendu behar direla.

# BAZTAN

ANIZKO BESTAK → URRIAREN 4TIK 6RA

## Euskal Herriko arpana txapelketako finala jokatu da igandean

Astelehenean boneta jaurtiketa eta akandre lehiaketa izanen dituzte

### TTIPI-TTAPA

Arrosarioko Amabirjinaren bestak ospatuko dituzte asteburu honetan Anizen eta ohiko denez egitarau zabala antolatu dute.

### LARUNBATA, URRIAK 4

- 11:00etan ezkil jotzea, eta altxaferoak herriko trikitilariak alaiturik.
- 11:30ean Herri-krosa: haurrentako eta helduendako ibilbide desberdinak.
- 12:00etan puzgarriak.
- 14:00etan paella, pas-

tel eta bizkotxo lehiaketa. Bazkaria.

- 15:30ean puzgarriak.
- 17:00etan Tirolina.
- 18:00etan txokolate jatea.
- 20:00etan Mutildantzak eta gaita.
- 20:45ean Baztan zopak.
- 00:30ean Hauspolariet taldearekin dantzaldia. Akitzeko, xingarjatea. Gan-torri autobus ibiliko da herri herri.

### IGANDEA, URRIAK 5

- 11:30ean herriko trikitilarietkin herriari itzulua.
- 12:00etan Meza Nagusia.
- 13:00etan otordua.
- 18:00etan Euskal Herriko arpana txapelketako finala. Ondotik, Hauspolariet taldea-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Paella eta boneta jaurtiketa lehiaketak egingen dira aurten ere.

rekin dantzaldia. Akabailan, afaria Mendiarte kultur elkartean.

### ASTELEHENA, URRIAK 6

- 11:00etan mus txapelketa.
- 12:00etan buruhandiak herrian barna. On-

dotik haurrek egindako marrazkien erakusketa.

- 14:00etan zikiro jatea, Joxe Angel akordeoi-lariak alaiturik.
- 17:00etan boneta jaurtiketa egingen dute.
- 18:00etan Akandre le-

hiaketa.

- 21:00etan Joxe Angel akordioilariarekin dantzaldia. Ondotik, xingar jatea eta suaren inguruan kantaldia. Akitzeko, Gaixoa Ni eta herriari itzulua.

Egin zaitez  
**ttipi-ttapa**ren  
harpidedun

(0034) 948 63 54 58

**CARLOS GARAICOETXEA ETXENIKE**  
abokatua

Santiago, 59 2C · ELIZONDO  
T. 948 581 468 M. 630 354 816

**MENDI**  
ostatua

Santiago 25  
948 580 313  
ELIZONDO

MENDIALDE  
Jatorria

T. 948 453 060 · AMAJUR  
www.mendialdea.com

**Mármoles SOULE**  
HILETA ARTEA

T. 948 453 444 | M. 629 659 583  
ARIZKUN



GARTZAINGO BESTAK → URRIAREN 10ETIK 13RA

## Boneta botatzea eta mariatxi doinuak izanen dituzte Pilarika egunean



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Hondar egunean zikiro jatea, boletoen zozketa eta ezkondu eta ezkongabeen arteko futbito partida izanen dituzte

bat zehaztu gabe bazezgoen ere, azken aldatarik ez bada, honako ekitaldiak izanen dituzte egitarauan:

### ORTZILERIA, URRIAK 10 BEZPERA

- 17:00etan txupinazoa eta ezkil jotzea bestak hasteko.
- Ondotik Mus Zimiste.
- 21:30ean Baztan Zopak trinketean.
- 00:00etan dantzaldia Oharkabe taldearekin.
- 06:00etan zinger jatea gaua indarrarekin akitzeko.

Kirolerako tartea hartuko dute aurten ere gartzaindarrek bestetan.

### LARUNBATA, URRIAK 11 HAUR ETA GAZTE EGUNA

- 10:00etan dianak eta argisoinuak.
- 14:00etan haur eta gazte bazkaria.
- 16:00etan Zirkus tailerra.
- 18:00etan txokolata eta gazteen arteko desafioa.
- 22:00etan herri afaria frontonean.
- 00:30etatik aitzinera Gabenara taldea.
- 06:00etan salto lehia-keta.

### IGANDEA, URRIAK 12 PILARIKA EGUNA

- 10:00etan dianak eta argisoinuak.
- 12:00etan meza Aixelteko ermitan eta ondotik luntxa.
- 18:00etan boneta botatzea.
- 20:00etan Los Tenampas mariatxien emanaldia.

### ASTELEHENA, URRIAK 13 HERRITARREN EGUNA

- 10:00etan dianak eta argisoinuak.

- 11:00etan futbito partida (ezkonduak ezkongabeen kontra ariko dira).
- 14:00etan zikiro jatea.
- Bazkaldu ondotik, boletoen zozketa eta trofeo banaketa eginen dira.
- Segidan, dantzaldia Joxe Angelekin.
- 22:30ean luntxa eta ondotik hondar gaupasa Joxe Angelekin.
- 03:00etan Gaixoa Ni eta besten akabaila emateko.

### TTIPI-TTAPA

Pilarika bestak ospatuko dituzte Gartzainen urriaren 10etik 13ra eta hau idazterakoan era-

**BAZTANen** urritik ekaina bitarte  
**IZENA EMATEKO EPEA:**  
 Irailaren 22tik  
 urriaren 4 artio

Argibide gehiagorako:  
**Baztango Udaleko**  
**Euskara Zerbitzua:**  
 948 58 00 06  
 euskara@baztangoudala.eu



**BARATZE, SUKALDARITZA ETA BIRZIKLAPEN ESKOLA, ERRATZUn**  
 Amaia Zinkunegik gidatuko du eta haurrekin baratze zaintza, sukaldaritza eta birziklapen ezagutza bai eta balio eta jarrera egokiak ere landuko ditu. Jarduera horri loturiko ezagutzak, bizipenak eta harremanak euskaraz jorrituko dira.  
**Asteazkenero, 15:00etatik 16:45era (5-8 urtekoendako) eta 17:00etatik 18:45era (9-14 urtekoendako), Etxelebert elkartearen.**  
 Kuota: 15 € hileko, urritik ekainera (30 asteazkenetari)

**LARUNBLAI** aisialdi programaren helburua hauren arteko eskolatik kanpoko harremanak euskaraz izatea da. Horretarako hezitzaile prestatuek ekintzak antolatu, taldeak dinamizatzeko dituzte eta neska-mutikoei ekintza jostagarri ugari proposatzeko dizkiete.

**ELIZONDOn** ortziraleroko, 17:00etatik 19:00etara, Arizkunenea Kultur Etxean, 6-12 urtekoendako,  
 Kuota: 10 € hileko, urritik ekainera (25 ortziraletarari).

**ORONOZen** bi larunbatetan behin, 17:00etatik 19:00etara, herriko pilotalekuan, 6-12 urtekoendako,  
 Kuota: 5 € hileko, urritik ekainera (14 larunbatetari).



# BAZTAN

GIZARTEA → UHOLDEEN ONDORIOAK

## Urri hondar artio ez da liburutegia zabalduko

Oraindik lan anitz dago egiteko

### TTIPI-TTAPA

Uholdeek sortutako kalteen ondorioz, Baztango liburutegia ez da urri akabaila artio irekitzen ahaliko. Kanpotik ikusita itxuraz ongi dagoela iduri badu ere, oraindik lan anitz dago egiteko: hondatutako liburuak banaka-banaka deskatalogatu behar dira, kaltetu diren liburu guztien zerrenda osatu eta eskaera egin, Nafarroako Liburutegiko Sarearen arduradunari jakinarazi...

Ondoko egunetan Aseguruaren Partzuergoko perituak, kalteak zenbatzeaz arduratzen denak eta Nafarroako Gobernua akordioa hestea espero da. Akordioa

hetsi ondotik eta dirua lortu bezain agudo, altzariak aldatzen hasiko dira. Erran bezala eta itxuraz ongi baldin badaude ere, liburuak atxikitzen dituzten oholak azpitik hazten ari dira, hortaz, beheitiko aldeko eta saihetseko aldeko apal guztiak aldatu behar dira. Altzari berriak paratzeko, liburu guztiak erretiratu eta banaka-banaka bere tokian paratu behar dira. Horrek lana ez ezik, denbora anitz eskatzen du.

Hau guztia dela eta, eta perituak emandako aurreikuspenaren arabera, urri akabaila artio ez da liburutegia irekitzen ahaliko. Hain zuzen, Baztango Udalak ez zuen orain artio oharrik idatzi, Aseguruaren Partzuergoak eta perituak kalteen zenbaketa akitzekoa zutelakoz.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Elizondoko Lanbide Eskolatik Baionara

Elizondoko Lanbide Eskolako Administrazio-kudeaketako Erdi Mailako ikasle batzuk Baionan aste bateko egonaldia egin dute PIREMOBV proiektuaren barne. Proiektu hau lanbide heziketa eta enplegu sistemak hobeki ezagutzera eta Pirinioetako bi alderdietako LHko ikasleen mugikortasuna zabaltzera bideratua dago. Elizondoko ikastetxearen kasuan Baionako ikastetxe batekin harremanetan jarri dira hau gauzatzeko. Lehen kontaktu hau hango enpresak ezagutzeko erabiliko da, etorkizunean lantokiko prestakuntzarako (enpresa-praktikak) bilatzeko.

### ELKARTEAREN 15. URTEURRENAREN HARIRA

## Larrazken Kulturala antolatu du Jo ala Jo Elkarteak Kirikoketa Besta girotzeko

### TTIPI-TTAPA

Jo ala Jo Kultur Taldeak 15 urte bete dituen hontan *Larrazken Kulturala* antolatuko dute urriaren bigarren hamabortzaldian, azaroaren 1ean eginen duten Kirikoketa Bestarako giroa berotzeko.

Urriaren 18an, Irurritako Jauregiartearen Ttun Ttun eguna eginen dute. Ibilaldia, erakusketa, solasaldia

eta folk kontzertua izanen dira.

Urriaren 23an, Elizondoko Aise elkartearen sagardo dastaketa ikastaroaren lehendabiziko saioa eginen da. Bigarren saioa, urriaren 30ean eginen da Arizkungo Gamioxarrean. Nola ez, leku bereko dolaretxean eginen da aurten hamabosgarren edizioa beteko duen Kirikoketa Besta, azaroaren 1ean.

KULTURA → URRIAREN 18AN

## Hasier Larretxea eta Peio Salabururen liburuak aurkezpen gurutzatuan

Irurritako Jauregiartearen batakeria bertzearen lana aurkeztuko dute

### TTIPI-TTAPA

Urriaren 18an aurkeztuko gurrutzatua eginen dute Pello Salabu-

ruk eta Hasier Larretxearen Irurritako Jauregiartearen taberna kulturalan 19:00etatik aitzinera. Pello Salaburuk Hasier Larretxearen *Larremotzetik* (Erein) liburuak aurkeztuko du, eta Hasierrek, berriz, Pelloren *Errateko nituenak. Cuzcoko kronika* (Erein).

Aste bat lehenago,

urriaren 11n, Hasierrek Donostiako Garoa Kultur Lab-en, 13:00etan aurkeztuko du aurten argitaratutako liburuak. Izanen diren sorpresen artean, bertzeak bertze, bertan izanen da bere aita Patxi egur bat moztzen berak testuak irakurtzen dituen bitartean.





GIZARTEA → IRAILAREN 20 ETA 21EAN ELIZONDON

# Pirinioetako behi onenak saritu dituzte

*Bibi* zenaren omenez eskainitako saria Arraiozko Elizaldera joan zen

## TTIPI-TTAPA

Aurten 27. edizioa bete duen Pirinioetako arrazako behien estatu mailako lehiaketa-entekatea egin da Elizondoko Merkaturako Plazan asteburu honetan. Nafarroa eta Bizkaiko azizendek lortu zituzten sari gehienak.

Gehienbat Euskal Herrian hazten diren azizendak izan ziren ikusgai Elizondoko eta 35 abeltzainek 205 buru lehiaketara aurkeztu zituzten. 18 abeltzain Nafarroakoak ziren (7 Baztangoak), 11 Bizkaitik etorriak eta 6 Gipuzkoatik. Sarien artean bat bereiztekotan, Juan Miguel Agirre Iparrera *Bibi* zenaren omenez, Arraiozko Elizaldeko Isabel Lournagak jasotakoa, bere ustiategiaren kalitatearengatik. Atal bakoitzeko irabazleak joarea eta 90 euro jaso zituen saritzat, 70 euro bigarrenak eta 50 euro hirugarrenak.

Pirinioetako arraza kasik desagertua egotetik gaur egun 13.000 buru izatera pasatu da, hobekuntza genetikoaren ondorioz. Elizondoko lehiaketan, geroz eta kalitate hobea eta erabaki zailagoa izaten dela azpimarratu du epaimahaiak

## GASTRONOMIA LEHIAKETA

Laugarren urtez egin diren gastronomia jardunaldien baitan, lehiaketa izan zen eta Baztango aretxe pintxo, salda eta busti onenak saritu zituzten. Sari nagusi gehienak Oronoz-Mugairiko ostatu-jatetxeek lortu zituzten. Pintxo onenaren saria Arraiozko Nafarmendi jatetxekoak eskuratu du, salda onena Elizondoko Karrika Ostaturakoa izan da eta bustirik onena Arizkongo Bixta-Ederrekoa. INTIA-Reyno Gourmet produktu sorta bat eta sukaldaritzako liburu sorta bat, Elizondoko Nafarpress liburudendak eskainia lortu dituzte saritzat.

*Nafarroako Aretxea* sari berezia Elizondoko Saioa ostaturak eskuratu du, aretxearekin lortutako produktu eskaintza orokor onenarengatik. Kasu honetan, Nafarroako Aratxeak eskaini duen 50 kilo behi-



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

Goitiko argazkian behien 'desfilea'. Erdian, Arraiozko Elizaldeko Garde-Lournagatarrak eta behegian, azienda eta gastronomia lehiaketetan saritutakoak.

ti. Kasu honetan, Nafarroako Aratxeak eskaini duen 50 kilo behi-

ki, 4 kaja ardo Príncipe de Viana eta sukaldaritzako liburu sorta bat,

Elizondoko Nafarpress liburudendak eskainia lortu ditu.

48 SARRERA ZOKKETATUKO DITUGU urtean zehar

AOVARIVM

CARLOS BLASCO DE IMAZ PLAZA DONOSTIA  
Tel +34 943 44 00 99

## URDAZUBI

GIZARTEA → IKASTURTE BERRIA

# Martxan dira Ugarana emakume taldearen ikastaroak

Urriaren 22ra arte apunta daiteke

## Iñigo IMAZ

Ugarana Emakume Elkarteak matrikulazio epea ireki du, urtero bezala, abian jarri dituen ikastaroetan parte hartzeko. Pilates (asteartero, 18:30etik 20:00etara, eta 20.00etatik 21:30era), Zunba (astelehen eta asteazkenean, 20:30etik 21:30era) eta, nahikoa jendek ize-na emango balu, *Stretching Global* ikastaroak aurreikusitako dira.

Bertzalde, pintura ikastaroa antolatu dute Zugarramurdiko parroikia-etxean. Aurten ere, toki baten falta dela eta ezingo du altzariak zaharberritzeko ikastaroa antolatu Ugaranak. Ikastaroetan parte hartu nahi duenak, berdin du gizon edo emakume, Anaxtaxirenean eman beharko du ize-na. Matrikulatzeko epea hilaren 22an bukatzen da, eta urteko kuota ordaintzeaz aparte (15 euro), ikastaro bakoitzeko 20 euroko kuota ordaindu beharko du hilabete bakoitzeko. Ma-



ARGAZKIA: I. IMAZ

Hainbat urdazubiar bildu ziren irailaren 21ean Urdazubiko plazan, 'gure ondarearen alde' lelopean ospatuko den 28ko Xaretako ibilaldia iragartzeko.

trikulazioa ezinbertzekoa da Ugaranaren ekimen guztietan parte hartzeko.

## Frantses eskolak Leorlasen

Marie Denise Mackert irakaslearen eskutik hasiko dira urrian frantses klaseak Leorlasen. Mackert irakasleainhoarraren erranetan, dagoeneko 12 ikasle matrikulatu dira.

Eskolak ortziraletan, 18:30etik 20:30era eta larunbatetan, 09:00etatik 11:30era izanen dira. Bi taldeotan, azterketa ofizialak prestatzeko parada izanen dute ikasleek. Aurtengo matrikula 15 eurokoa izanen da. Informazio gehiago edo matrikulatzeko 638 060507ra dei daiteke.

## Sexu heziketa

Zugarramurdi eta Urdazubiko gizarte zerbi-

tzuak antolaturik, eta Nafarroko Gobernuak finantzaturik, sexu heziketa garatzeko zailtasun eta beharrak partekatzeke espazioari buruzko eskolak urriaren 7, 14 eta 21ean emango dira Urdazubiko eskolan. Ikastaroa Solasean espazio sexologikoaren esku egonen da eta sexualitatea nerabezaroan eta sexu hezkuntza nola egin izango ditu hizpide.

## UDAL BATZARRA

Aurrekontuekin zerikusia duten bi puntu onartu zituen udal gobernu taldeak azkeneko batzarrean

### TTIPI-TTAPA

Azkar eta Urtxume udal-taldeetako kideekin batera, abuztuaren 29ko udal batzarrean SOS Alkerdiko hainbat kide hurbildu ziren Herriko Etxera. Castor Iribarren S.A. enpresak Dantxarinear duen Joseneako lanategia zabaltzeko proiektuari buruz udal arkitektoek emandako iritzirik baimonkorra aipatu zuen alkateak. Gobernu taldeak arkitektoen txostena kontuan hartuz, baiezkotzea eman zion proiektuari.

Aurrekontuei dagokienez, Nafarroako Administrazioaren Auzitegiaren 14.236 ebazpena tratatu zen. Labaien anai-arrebek 2014ko aurrekontuen aurkako errekurtsoari eman beharreko erantzuna onartu zuen Go-

bernu taldeak eta bertzetik, 2013ko udal aurrekontuak eta Urdazubiko Elektraren kontuak ere onartu zituen.

Aurten egiteko hainbat obra onartu ziren. Diru-laguntzak eskatu dira, baina esperoan gelditu beharrean, finantza-plan bat garatuko da proiektu bakoitzarendako, horretarako Udalak kostuaren %100 bere kontu hartuz. Alde batetik, Larrainta, Koilar eta Landibar behereko errepideak argiztatzeko proiektuaren finantzazio plana onartu zuten Azkar eta Urtxumeko zinegotziek. Herriko bi bide konpontzeko proiektua martxan jartzeko finantzazio planari ere baiezkotzea eman zioten. Iribehereko saneamendu lanekin ere berehala hasiko dira, proiektuak zinegotzi guztien baiezkotzea jaso ondotik.



**JATETXEA-ERRETEGIA**  
**MONTXO**  
**OSTATUA-TTBALBO-DENDA**

Egunero irekia  
 09:00etatik  
 02:30era

Dantxarinearatik  
 2 km.tara

PLATER KONJINATUAK • OGITARTEKOAK  
 MENUAK ENKARGUZ • PINTXOAK  
 ESPEZIALISTAK ARRAN ETA TKULETOIAN

ANZAN-BORDA • URDAZUBI | 948 599 039  
 montxoblanco@gmail.com



KULTURA → XILABA ETA BERTSO ESKOLEN EGUNA

## Urriaren 11n hitzordu bikoitza dute bertsozaleek

**Franck DOLOSOR**

Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko IV. Bertsulari Xapelketa urriaren 4an hasiko da Muskildin eta bigarren kanporaketa Senperen izanen da urriaren 11n Larreko Kulturgunean 17:00etatik aitzinera. Battit Crousperre, Lur Renteria, Maddalen Arzallus, Maddi Sarasua, Miren Artetxe eta Xumai Murua ariko dira kantuan.

Kanporaketa hasi aitzin bertso giroa nabaritu da herrian, Euskal Herriko Bertso Eskolen Eguna ere orduan izanen baita. Bertso Eskola Arrosak hartu du aurten topaketa bere herrian antolatzeko txanda, eta egitarau hau osatu dute. 12:00etan hasiko dira topaketak Larraldean eta ondotik bazkaria izanen da. Arratsaldean kantu

ibilaldia izanen da eta arratsalde ilunabar aldean poteoa, talo jatea eta kale animazioa. Gaztetxean segida izanen du bestak. Bazkari eta saiorako sarrerak webgunean dira salgai urriaren 5a arte [www.bertsosarrerak.eu](http://www.bertsosarrerak.eu) orrialdean. Lotarako akanpatzeko tokia ere jarriko dute, baina gogorazazi dute oihal etxola norberak ekarri behar duela.

**Charles Ollivon**

Berri onak bat bertzearen ondotik ageriz aitzin herriko errugbilariei. Ekainean, Frantziako txapelketa irabazi zuen bere mailan SPUC taldeak; eta duela egun batzuk Charles Ollivon Aviron Bayonnais taldean ari den 21 urteko senperrak hautatu dute Frantziako



UTZITAKO ARGAZKIAK

Maila ederra eman du 21 urteko gazte senperrak Aviron Bayonnais taldearekin.

selektzioaren ikastaroetan aritzeko. Ikastaldietan herrialde osoko 30 errugbilaritza trebatuko dira selektzioak laster jokatuiko dituen partidei begira.

Biziki pozik eta harro dago sailkatua izateaz. Maila horretarat heltzen den gazteenetakoa da 2 metrako garaiera eta 110 kilo pisatzen dituen herritarra. Eskerrak eman dizkio Aviron Bayonnais taldeari aintz zor omen baitio. Ollivonek dio gaitzeko maila erdietsi duela azken urteetan izan duen formakuntzari esker eta orain fruituak ageri direla. Baionan dituen tre-

batzaileek ere argi dute fisikoki prest dela goi mailako lanarentzat eta oraindik gehiago ikasiko duela Frantziako jokalaritza hoberekin formakuntzak eginez. Ollivonek pilota maite izan du ttikitatik; eta maiz aritu da joko hortan, hasteko aire hartze denboran eskolan ibilki zelarik eta horrek erretasunak eta arintasuna ematen dizkio. Dena den, errugbia da oroz gainera gustatzen zaion kirola. Il-todo hortan aita, anaia eta hurbileko lagunak bide-lagun izan ditu eta dauzka gaurko egunean ere. Nerabezaroan luzaz aritu

da trebatzen Urdazuri aldean baina dioen bezala, gero noizbait urdina eta gorriaren artean hautatu behar da. Eta dudarik izan gabe Avironen hautua egin zuen. Senperen kadet mailan arituz zelarik baionesak berak etorri zitzaizkion bila 16 urte zituela. Orain esperantza kontratua dauka Baionarekin 2016ra arte. TOP14 txapelketan jokatu behar dituen partidak eta selektzioaren ikastaldiak uztartzen ditu eta ator urdina janzteko itxaropenarekin lasterka segitzen du baloia gibelatik.



GRUPO TANATORIO TALDEA  
**IRACHE**  
MALDAERREKA S.L.

**24 ORDUKO TELEFONOA**  
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)  
ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA

— TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA —  
— LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK —

## SARA

GIZARTEA → «ELKARLANA EZINBERTZEKO DA»

# Udalbiltzarekin bat egin dute herriko 23 hautetsiek

Joana GERENDIAIN

Herriko kontseilu osoa Udalbiltzaren barne sartu da, orain arte ordezkari bakarra zuen Sarak eta hemendik goiti 23 izanen ditu. Udalbiltza 1999an sortu da eta Euskal Herriko herriko etxe eta herri kontseiluen biltzarra da. Euskal herriko lehen instituzio nazionala da, gaur egun 1425 udalbiltzarkide eta 177 auzapez sartzen dira proiektu horretan. Irailaren 15 ean, besta astelehenez Udalbiltzak eta Sarako Herriko kontseiluak ekitaldi instituzionala antolatu zuten plazan eta Euskal Herri

osoko auzapez eta hautetsien ordezkari bala bildu zen. Ekitaldian Igor Aierbek Ataungo auzapezak, Battit Laborde Sarako auzapezak eta Mertxe Aizpuruak Usurbilgo auzapezak hitza hartu zuten.

## Zerri hazkuntza proiektua

Irailaren 5ean Har Hitza elkarteak bilkura publikoa antolatu du Lur Berri gelan herriko etxeak Zuhalmendin zerri kintoa hazteko duen proiektuari buruz. Jojo Bidart izan da bilkurren eramailea. Bilkurak arrakasta izan du 180 bat pertsona hurbildu



ARGAZKIA: JEAN POUYET

Mixel Guerendiainek aurkeztu zuen Udalbiltzak herrian egin zuen ekitaldia.

baitira. Bilkuran atera diren kezkak ziren iturrien zaintzeari buruz, pottoken eremuen murrizteari buruz, proiektua turismoari lotua denez ez ote direnez azpiegituren garatzeari buruz... Mahai inguruko kideek jarrera ezin hobe izan zuten galdera hauetara erantzunez eta eztabaida piztuz.

## Sara Korrika

Bestetako larunbatean Sara Korrika elkarteak lasterketa antolatu zuen. Bero sargoria izan arren 164 korrika-

lari hurbildu dira, haur artean 34 neska, lasterketaren egitera. Aurtten Benoit Corik irabazi du itzulia 42 minututan eginez, bigarrenak, Fernando Etxegaraiek 43'08" eman ditu eta Joseba Larralde 43'14". Saratarrek lan ona egin zuten. Mutikoetan, Pantxo Saint Martin 10. ailegatu da (47 minutu), David Nesprias 12. (48 minutu), Ximun Garcia Basurco 20. (51 minutu) eta Andoni Garbizu 54. (58 minutu). Nesketan, Murielle Miguelgorry ailegatu da lehena

itzulia 59 minututan eginez, Pantxika Etcheverriak ordu bat eta 5 minutu eman ditu, Amaia Saint Martinek ordu bat eta 10 minutu, Claire Grillard-ek ordu bat eta 12 minutu eta Christine Iribarrenek ordu bat eta 14 minuta.

## Kirol emaitzak

Eskubaloian, neskek sasoina ongi hasi dute, Barzuneko ekiparen kontra 19-18 irabaziz etxean. 18 urte azpikoek ere irabazi dute 16-14 Madiraneko ekiparen kontra.



**Alfonso SALDIAS AGESTA**  
Donezteben, 2014ko irailaren 10ean

Zure izatedarekin elikatu garen bezala,  
zuri argiztatzeko  
izar berria topatuko dugu.  
Zure berotasun eta irriak  
hutsuneak betetzen gidatuko gaitu,  
zurekin bizitakoa bidailagun izanik.

**ZURE FAMILIA**



Oroigarriak egiten ditugu

ttipi-ttapa Koskontako bidea, 07-1. | 31770 LESAKA | 948635458





## EZKONTZAK

**Yacine El Khier** eta **Beatriz Grande Goñi**, Irungoak Lesakan, irailaren 22an.  
**Xabier Fagoaga Maia** eta **Itxasne Otxoteko Abuin**, Lesakakoak Hondarribian, irailaren 20an.  
**Iñaki Rodriguez Tomasena** eta **Ana Paula Calzada Pacheco**, Goizueta-koak, irailaren 20an.  
**Iñaki Zelaieta Oteiza** eta **Aintzane Gotzone Martirena Hernandezena**, Leitza eta Legasakoa, irailaren 20an.  
**Yon Martinez Frutos** eta **Ismael Heredia Guerrero**, Ituren eta Pasaikoa, Iturenen irailaren 20an.  
**Iban Ezkurra Salaberri** eta **Itxaso Mutuberría Antzizar**, Donamariakoak Donezteben, irailaren 10ean.  
**Iban Telletxea Mariezkurrena** eta **Sandra Telletxea Rekarte**, Ezkurra eta Doneztebekoa, irailaren 20an.  
**Virgile Jauregi** eta **Sonia Coppens**, Sarakoak, irailaren 20an.  
**Emmanuel Bardin** eta **Pauline d'Aleman**, Sarakoak, irailaren 20an.



## SORTZEAK

**Unax Arraztoa Korteia**, Elizondokoa, abuztuaren 28an.  
**Izei Deskarga Legasa**, Lesakakoa, irailaren 12an.  
**Joel Verde Dorronsoro**, Nartartekoa, irailaren 17an.  
**Haritz Ariztegi Gorosterrazu**, Etxalarkoa, irailaren 16an.  
**Xiker Olagarai Asensio**, Etxalarkoa, irailaren 19an.  
**Alba Zelaieta Zunzarren**, Doneztebekoa, irailaren 10ean.  
**Uxue Iturria Suberbiola**, Oartzungoa, irailaren 21ean.  
**Odei Barrenetxe**, Sarakoa, abuztuaren 23an.  
**Sôhan Eric Brabant**, Sarakoa, abuztuaren 25ean.  
**Gilen Lefranc Coscarat**, Sarakoa, irailaren 3an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*



## HERIOTZAK

**Pedro Jose Irigoien Irigoien**, Erratzukoa, irailaren 15ean, 61 urte.  
**Mattin Azpiroz Marzol**, Aresokoa, irailaren 16an, 71 urte.  
**Jose Leon Aiestaran Irazoki**, Lesakakoa, irailaren 21ean, 82 urte.  
**Dionisio Aranburu Arribillaga**, Goizuetakoa, irailaren 20an, 87 urte.  
**Marcos Baraibar Iturralde**, Lekarozkoa, irailaren 18an, 84 urte.  
**Mercedes Larretxea Burgete**, Arantzakoa, irailaren 22an, 90 urte.  
**Elvira Daguerre**, Sarakoa, abuztuaren 17an, 93 urte.  
**Joseph Toffolo**, Sarakoa, abuztuaren 19an, 87 urte.  
**Pierrick Falque**, Sarakoa, abuztuaren 30ean, 53 urte.  
**Catherine Goienetxe**, Sarakoa, irailaren 18an, 99 urte.



MENDI LASTERKETAK → IRAILAREN 13AN


# 161 korrikalarik bukatu dute Sara Korrika lasterketa

Bordeleko Benoit Cori eta Sara Korrika taldearekin ari den Murielle Miguelgorri ezpeletarra nagusitu ziren

## TTIPI-TTAPA

Sarako beste hasmenta emateko, Sara Korrika mendilasterketa burutu zen irailaren 13an. 161 korrikalarik, 129 gizasemek eta 32 emakumek lortu zuten 10.300 kilometra luze eta 374 metroko desni-

bela duen lasterketa go-gorra bukatzea. Gizonezkoetan, Bordeleko Benoit Cori nagusitu zen (42:13), Berako Fernando Etxegarai (43:08) eta Joseba Larralderen aitzinetik (43:14). Laugarren Arantzako Ekaitza elkarteko Mikel Altzuri izan zen (43:23) eta bosgarren postua ere Ekaitzako bertze korrikalari batek lortu zuen, Asier Apezetxeak (45:04). Hamar lehenbizikoetan sartu ziren Agerra Mendi Taldeko Ibai Iturria beratarra (zazpigarren, 46:56) eta Sara Korrikako Pantxo Saint Martin (hamargarren, 47:54).



ARGAZKIAK: SARA KORRIKA ETA ANGEL POMBAR

Goitian, sailkapeneko lau lehenbizikoak probaren maldetako batean. Beheitan, Sara Korrikako Murielle Miguelgorri ezpeletarra garaile sartzen plazan.

Emakumezkoetan, Sara Korrika taldeko Murielle Miguelgorri ezpeletarra izan zen lasterketa burutzeko ordu-bete baino guttiago behar izan zuen korrikalari bakarra (59:54). Ur ki-

rolak taldeko Sabrina Doyenard izan zen bigarren (1:01:33) eta Marie Noelle Laugier hirugarren (1:02:17). Eskualdeko korrikalariei dagokionez, Berako Gure Txokoako Garbiñe Igu-

ran bederatzigarren izan zen (1:06:55), Manttalleko Itxaso Irigoien le-sakarra hamahirugarren (1:09:16) eta Sara Korrikako Amaia Saint Martin hamaseigarren (1:10:29).

HERRI KIROLA → URRIAREN 5EAN ETXARRI-ARANATZEN

# Nafarroako lehen mailako aizkolari txapelketaren finala igandean

Floren Nazabal, Jon Rekondo, Ruben Saralegi, Ander Erasun eta Oihan Larretxea lehiatzen

## TTIPI-TTAPA

Larretxeatarrek irudikatu dute belaunaldi aldaketa Nafarroako lehen mailako aizkolari

txapelketa nagusiaren kanporaketan. Oihan semea urriaren 5ean Etxarri Aranazen jokatu den finalean izan da, Floren Nazabal, Jon Rekondo, Ruben Saralegi eta Ander Erasunekin batera. Donato aita, aldiz, finaletik kanpo izan da.

Irailaren 21ean jokatu zen kanporaketa Uhartan. Aizkolari bakoitzak bi kana-erdiko,

bi 60 ontzako eta oinbiko bat moztu behar izan zituen, finalean izan den lanaren erdia. Floren Nazabalek garbi erakutsi zuen finalerako favorito izan dena, 14 minutu eta 42 segundotan bukatu baitzuen lana. Jon Rekondo bigarren izan zen (15.33), Ruben Saralegi hirugarren (15.55), Ander Erasun laugarren (16.31) eta Oihan La-

retxea bosgarren (17.14). Finaletik kanpo gelditu ziren Kañamares III. (seigarren, 17.29) eta Donato Larretxea (zazpigarren, 17.31).

Halere, maila galduko dutenak Manolo Kañamares eta Antonio Senosiain izan dira, uko egin baitziote parte hartzeari, Juanjo Lopez ere ez zen aritu kanporaketan, baina eri zegoelako.

## EUSKAL HERRIKOA

Eskualdeko aizkolari ez da izanen finalean

## TTIPI-TTAPA

Urriaren 26an Beasainen jokatu den Euskal Herriko lehen mailako aizkolari txapelketaren finalean ez da eskualdeko ordezkari izanen. Irailaren 13an Aian jokatu den kanporaketan banatu zituzten sei txartelak eta Ander Erasun zazpigarren izan zen, Jon Rekondo bederatzigarren eta Ruben Saralegi hamargarren.



LAXOA → IRAILAREN 13an JOKATU ZEN FINALA

# Oiz nagusitu da gazteen laxoa txapelketan

9-8 irabazi zion Arraiozi bi ordu iraun zuen final gogorrean

## TTIPI-TTAPA

Baztan-Errekako gazteen laxoa txapelketako finala Oizen jokatu zuten irailaren 13an Oiz A eta Arraioz A taldeek. Final erdietako bi kanporaketak parekatuak, emozioz betetakoak eta onak izan baldin baziren, finala txapelketako partidarik ho-

berena izan zen: bi ordu pasa iraun zuen, plazan sekulako giroa, joko maila oso ona eta emozioa gainezka. Azkenean, etxeoak 9-8 nagusitu ziren.

Oizko taldean Ioritz Zelaieta, Aimar Saldias, Zorion Zelaieta eta Jon Oiartzabal aritu ziren. Arraiozkoan, Eki Etxandi, Josu Etxandi, Urki Etxandi eta Mikel Or ganbide.

Nahiz eta partida osoan oiztarrak marka-



ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA

Finalistak Alberto San Miguel Oizko alkatearekin eta Joxe Joakin Ziganda historikoarekin.

gailuan aitzinean ibili (3-0, 3-1, 4-1, 4-3, 6-3, 6-5, 7-5, 7-7, 8-7, 8-8), arraioztarrek partida irabazteko aukera ezin hobe izan zuten, azken jokoan 30-0 jarri zirenean.

Txapelak eta sariak

Oizko alkatea den Alberto San Miguel eta aurtengo Laxoaren Eguanean omenaldia hartu zuen Joxe Joakin Ziganda herriko jokalaria historikoak banatu zituzten. Gero, txapelketan parte hartu duten jo-

kalaria guztiak herriko elkartearen merendu-afari bat egiteko bildu ziren.

Txapelketa uztailean hasi zuten zortzi taldek eta astero bi jardunaldi jokatu dira. Laxoaren etorkizuna baikorra dela ematen du.

MENDI BIZIKLETA → URRIAREN 4 ETA 5EAN

# Nafarroako Enduro txapelketa Igantzin erabakiko da

Arbizun eta Zubirin jokatutako proben ondotik

## TTIPI-TTAPA

IrriSarri Landek Nafarroako I. Enduro Opetaneko azken proba antolatuko du. Igantziko abentura parkeko instaluntzetan egingen da

urriaren 4an eta 5ean. Proban parte hartu nahi duenak [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) atariaren bidez eman behar du izena.

I. IrriSarri Land Enduro proba urriaren 4an, larunbatarekin hasiko da, eta bi entrenamendu saio egingen dira Biker Parkean, goizez eta arratsaldean. Horrez gain, *Four Cross* (mendiko bizikleta diziplina bat)



ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA

IrriSarri Landen egingen da txapelketako azken proba.

egiteko aukera izango da 8 eta 13 urte arteko haurrentzat, eta Funbox Factory-ren eskutik, Dirt Jump erakustaldia eskainiko dute Martxel Arribillaga, Ibai Gaztelumendi eta Mikel Lazkanok.

Proba igandean, urriak 5, goizeko 9etan abiatuko da. Zirkuituak, banaz bertze, 15 km eta 900 metroko desnibel

metatua izanen ditu. Automatikoki neurtutako hiru zirkuitu izanen ditu, eta haiek lotzeko, neutralizatutako hiru zati. Arratsaldean parte hartzaileentzako festa izanen da; DJak, haurrentzako Four Cross lagunarteko lasterketa, Dirt Jump erakustaldia eta sari banaketa. Lehen, bigarren eta hirugarren scrach-ek; elite

mailako lehenak; junior mailako lehenak; lehen emakumezkoak; 30 masterreko lehenak; eta 40 masterreko lehenak eskuratuko dituzte sariak. Urte osoko IrriSarri Landeko forfai, gauak aterpetxean, bi lagunentzako bazkaria, eguneko forfai eta proba babesten duten kirol etxeen materiala izanen dira sariak.

## urriak 2 - 16

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net) edo 948 63 54 58

<p><b>Ospakizunak</b></p>  <p>BAZTAN   2014.10.18-23-30</p> <p><b>Jo ala Jo Kultur Taldearen 15. urteurrenako ekitaldiak</b></p> <p>Jo ala Jo Kultur Taldeak 15 urte bete ditu eta, <i>Larrazken Kulturala</i> antolatuta hainbat ekitaldi-ekin: Ttun Ttun Eguna, sagar eta sagardo dastaketa, ikastaroak...</p>	<p><b>Kontzertuak</b></p>  <p>BEINTZA-LABAIEN   2014.10.18</p> <p><b>Mikel Markez eta Erramun Martikorenaren kontzertua</b></p> <p>Malerrekako Kultur Ibilbidearen barne, urriaren 18an Mikel Markez eta Erramun Martikorena elkarrekin ariko dira Beintza-Labaiengo elizan, 19:00etan.</p>	<p><b>Ospakizunak</b></p>  <p>LEITZA   2014.10.04</p> <p><b>Aurrera Kirol Elkartearen urteko hitzordua</b></p> <p>Aurrera Kirol Elkartearen eguna ospatuko dute aurten zortzigarren aldiz. Kirola eta pesta bat eginik, egun osorako ekitaldiak prestatu dituzte.</p>
---	--	---

**Erakusketak**

OIEREGI

**Diana Iniestaren margo erakusketa**

Iraila eta urria Bertizko Natur Parkean.

LEITZA

**'Diruaren sexu ezkutua'**

Urriaren 13tik azaroaren 4ra udaletxean, euskal emakumeen ekonomia ikusgai.

**Hitzaldiak**

IRURITA

**Liburuen aurkezpen gurutzatuak**Urriaren 18an aurkezpen gurutzatua Jauregiarte tabernan (19:30). Pello Salaburuk Hasier Larretxearen *Larremotzetik* liburua aurkeztuko du, eta Hasierrek Pelloren *Errateko nituenak*. *Cuzcoko kronika*.**Nafarroako Hegaztien Jardunaldien barne**

Urriaren 3an hegaztien migrazioa hizpide Jauregian, 18:30ean.

Urriaren 4an hegaztien inguruan hitzaldia 18:30ean Jauregian. Eta olerki-errezitaldia Jauregiko lorategian, 20:30ean.

BERA

**Julio Caro Barojaren inguruan Beralandetan**Urriaren 3an *Barojatarren sorginak* Koro Irtzoki eta Juainas Paul Arzakekin (19:30). Urriaren 10ean *Bizipenak: Julio Caro Barojaz solasean* (19:30).**Doluaren inguruan**

Urriaren 15ean Beralandetan, 17:00etan.

ESKUALDEA

**Bidaziko bilerak**

Urriaren 8an Saran, 20:00etan.

Urriaren 17an Berako Beralandetan (19:30).

DONEZTEBE

**Alzheimerria hizpide**Urriaren 14an *Portaera nahasmenduen maneia* zaintzaileentzat. 17:00etan Mankomunitatearen egoitzan.

ARESO

**LOMCEri buruz**

Urriaren 9an Nazabal eskolan 17:00etan.

**Jardunaldiak**

BAZTAN/BERTIZ

**Nafarroako Hegaztien Jardunaldien V. edizioa**  
Urriaren 3tik 5era.**Lehiaketak**

ORONÓZ

**Argazki rally-a**

Urriaren 19an Itxusi Elkarteak antolatuta.

**Ikastaroak**

DONAMARIA

**Haurrendako antzerki ikastaroa**Urriaren 3tik ekainera. 620 217663 edo [info@hoidek.es](mailto:info@hoidek.es).

DONEZTEBE

**Helduentzako antzerki ikastaroa**Urriaren 3tik ekainera. 620 217663 edo [info@hoidek.es](mailto:info@hoidek.es).

URDAZUBI

**Guraso eskola**

Urriaren 7, 14 eta 21ean sexu heziketaz.

LEITZA

**Energia jardunaldiak Atekabeitzen**

Urriaren 8an Etxeko fakturak nola irakurri eta kontratatu (19:30).

**Ospakizunak**

LEITZA

**Aurrera Elkartearen VIII. Eguna**

Urriaren 4an.

IBARDIN

**Kontrabandisten besta**

Urriaren 10etik 12ra.

ZUBIETA

**Euskararen Eguna**

Urriaren 10 eta 11n.

ETXALAR

**III. Gazte Eguna**

Urriaren 11n.

BAZTAN

**Larrazken kulturala Jo ala jo Kultur Taldeak 15 urte bete ditu eta**

Urriaren 18an Iruritik jauregiarte Ttun Ttun Eguna II: ibilaldia, erakusketa, solasaldia eta folk kontzertua.

Urriaren 23an Elizondoko Aise elkartearen sagardo dastaketa, ikastaroa.

**Ikuskizunak**

BERA

**'Garai hura gara'**

Urriaren 4an ikuskizuna. Andoni Egaña bertsolaria eta Xabier Liza-so piano-jotzailearekin. 19:30ean Kultur Etxean. Sarrera: 6 euro.

## PROPOSAMENA

IPAR EUSKAL HERRIA

**18 bertsolari Xilaba Bertsolari Xapelketan**

Urriaren 4an abiatuko da Muskildin Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko IV. Bertsolari Xapelketa. Bigarren kanporaketa Senperen izanen da hilaren 11n Euskal Herriko Bertso Eskolen Eguna-ekin batera. Aiherran urriaren 18an jokatu den azken kanporaketaren ondotik, bi finalurreko egingen dituzte, Larresoron eta Aiziritzen. Finala azaroaren 15ean Baionan izanen da.





URROZ

**Kiki, Koko eta Moko  
Malerrekako Kultur  
Ibilbidearen barne**

Urriaren 25ean paila-  
zoak frontoian (17:00).

**Dantzak**

IRURITA

**Dantzari Eguna**

Urriaren 4an plazan,  
12:30ean.

**Bertsoak**

BERA

**Enaitzen aldeko bertso  
afaria**

Urriaren 11n Zubiondo  
jatetxean Iker Zubeldia  
eta Amets Arzallusekin,  
21:00etan.

SENERE

**Xilabako kanporaketa  
eta Euskal Herriko  
Bertso Eskolen Eguna**

Urriaren 11n. Kanpo-  
raketa 17:00etan Larre-  
ko Kulturgunean: Ba-  
ttitt Crouspeyre, Lur  
Renteria, Maddalen Ar-  
zallus, Maddi Sarasua,  
Miren Artetxe eta Xu-  
mai Murua.

**Kontzertuak**

LEITZA

**Jeiki abesbatzaren  
kontzertua**

Urriaren 3an 19:30ean  
zineman.

SUNBILLA

**Beira taldea  
Malerrekako Kultur  
Ibilbidearen barne**

Urriaren 4an Musika-  
tutako bertsoak, Arizti-  
gain kanpinean (19:30).

ELGORRIAGA

**Malerreka kantuz**

Urriaren 4an plazatik  
abiatuta (12:00).

**Imuntzo eta Beloki  
Malerrekako Kultur  
Ibilbidearen barne**

Urriaren 11n kontzer-  
tua 17:00etan.

**ENTRETENIMENDURAKO GAIAK**

**Liburua**




Zazpi gau

**PALOMA MUIÑA**

Ibaizabal, 2014

> Jurgi ttikiak zailtasunak izaten ditu lo hartzeko. Edozein aitzakia erabiltzen du gurasoen pazien-  
tzia probatzeko: astelehenean, ekartzeko edalontzi  
bat ur; asteartean, kontatzeko ipuin bat; asteazke-  
nean, ateratzeko logelan dagoen munstroa kanpo-  
ra... Egunak joan eta egunak etorri, Jurgiren gura-  
soek gero eta pazientzia guttiago dute. Azkenean,  
igandean, esna gelditzea erabakiko dute... Egune-  
roko eta familiako kontuen istorioa da. 5 urtetik aitzin-  
erako neska-mutikoentzako da eta irakurleak iden-  
tifikatuta sentituko dira bakarrik lo egiten ikasteko  
zailtasunekin eta gaueko beldurrekin. Estiloa eta el-  
karrizketak xumeak dira eta istorioaren planteamen-  
dua lineala, hortaz, irakurritz gozatu egiten da. Ilustra-  
zio koloretsuek ikuspegi ausarta eta baikorra ematen  
diote planteatutako egoerari. Paloma Muiñak  
idatzi du liburua eta Rebecca Lucianik marrazkiak  
egin ditu.

**Musika**



Biluzik

**MAIALEN ERROTABEHERE**

Agorila, 2014

Urriaren amaieran ikusiko du argia Maialen  
Errotabehereren hirugarren diskoak. Zortzi  
urte zenetik dabil kantuan eta lehenagotik *Nere  
mundua* (2004) eta *Askatasunen ibaia* (2007) dis-  
koak kaleratu ditu, baita Mixu zenarekin (Sustraia)  
eta Xabaltx-ekin partekaturiko *MMX* diskoa ere.  
*Biluzik* izenburuko lanean blues eragina duten  
pop-rock kantuek bildu ditu Arrosako kantariak.  
Pat Teteuide, Iban Larreboure (Sagarroi tal-  
deko kide ohia), Raphaël Ferreira eta Txus Aran-  
burrekin (Tapia eta Leturia, Rafa Rueda, Eñaut  
Elorrieta...) grabatu du. Halaber, bi kolaborazio  
aipagarri izan ditu ahotsetan: Petti eta Eñaut Elo-  
rrieta kantarietak. Diskoaren aurrerapen gisa,  
*Ximist urdina* kantuararen bideoklipa zabaldu du  
Errotabeherak.

**Internet**



Merkatari elkarten  
federazioaren web orria

**WWW.DENOKBAT.ORG**

Baztan, Bera, Doneztebe eta Lesakako merka-  
tari eta zerbitzu elkarteek osatu duten Denok  
Bat Federazioaren web orria da [www.denokbat.org](http://www.denokbat.org).  
Landa-ingurune berean egonik, kezka berdintsuak  
partekatzen dituztenez, euren arteko elkarlanaren  
bertze fruitua da. Gisa honetara, hainbat ekimen  
antolatuta herriak dinamizatu nahi dituzte, hemen-  
go saltokiak bultzatu eta lanpostuak sortu. Eta bide  
batez, Denok Bat giltzaria ere sortu dute, fede-  
razioaren barnean dauden saltokietan erabiltzeko  
tresna. Giltzari honi esker, bezeroek erosketekin  
puntuak eskuratuko dituzte eta gero saltokietan  
trukatu ahal izaneko dituzte. Web gunean proiektu  
honetara atxikitako merkatarien informazioa eta ba-  
koitzean lortutako puntu kopurua kontsulta daite-  
ke. Horretaz gain, bertzeak bertze, e-mail eta sms  
bidez abantaila berezi eta deskontuei buruzko in-  
formazioa ere jaso daiteke dohainik.

ZUBIETA

**Kontzertuak  
Euskararen Egunean**

Urriaren 11n Eñaut  
Elorrieta, Estu&Larri eta  
Oharkabe.

BEINTZA-LABAIEN

**Mikel Markez eta  
Erramun Martikorena  
Malerrekako Kultur  
Ibilbidearen barne**

Urriaren 18an elizan,  
19:00etan.

ELIZONDO

**Nafarroako Orkestra  
Sinfonikoa eta  
Elizondoko Abesbatza**

Urriaren 18an elizan,  
20:15ean.

BERA

**Bide Ertzean taldea**

Urriaren 12an Kultur  
Etxean 19:00etan.

**Filmak**

DONEZTEBE

**Bi film ikusgai**

Urriaren 12an *Los  
Muppets* 16:30ean eta  
*Ocho apellidos vascos*  
18:30ean.

LEITZA

**'Larre motzean' doku-  
mentala eta hitzaldia**

Urriaren 13an udale-  
txeko lehenengo pisu-  
an, 19:00etan. Euskal  
Herriko garapenean la-  
gundu duten emakume  
ezezagunen istorioak.

ELIZONDO

**'81 amama'  
dokumentala**

Urriaren 15ean Ariz-  
kunenean, 19:00etan.

**Bestak**

ANIZ

**Herriko bestak**

Urriaren 4tik 6ra.

GARTZAIN

**Pilarika bestak**

Urriaren 10etik 13ra.

**ETXEBIZITZAK**

salgai

**ORONAZ-MUGAIRI.** Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Bero-gailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milioi Pta/ 100.000 €. ☎948 585036.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**  
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

**URDAZUBI**  
- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m<sup>2</sup>ko lursailarekin.

**DONEZTEBE**  
- **Aukera:** 102 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m<sup>2</sup>ko trastelekua.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

**BERA.** Etxebizitza atxikia salgai. 200m<sup>2</sup>. 3 solairu, kalitateko materialak, 4 logela, 2 bainugela, garajea (27 m<sup>2</sup>) eta lorategia (75m<sup>2</sup>). 3 autorentzako aparkalekua. 350.000€ (prezio negoziagarria). Deitu 19:00-etatik aurrera. ☎636 880115.

**ELIZONDO.** Santiago karrikan pisua salgai, trastelekua, garajea eta igogailuarekin. Oso argitsua. Balkoi haundiak. 2007koa, estreinatua gabea. 71,78m<sup>2</sup>koa, 2 logela, sukalde-jangela zabal eta bainugela bat. Material onekin egina. Prezio merketua: 121.000 euro. ☎665 706228 / 943 618933.

**LEITZA.** Pisualsagai, bajera eta igogailuarekin.

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA  
**ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ **GERO 10€**  
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta  
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz  
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

70.000 euro. ☎660 856246 / 634 406302.

**ETXEBIZITZAK**

errentan emateko

**DONEZTEBE.** 2 logelako pisu argitsua errentan emateko. Prezioa: 300 euro. ☎667 334139 / 618 834892.

**ITUREN.** Etxea edo pisua errentan emateko. Leku lasaia. ☎680 456866.



**ELIZONDO.** Giltxaurdi karrikan pisu berria errentan emateko. Garajea eta trastelekua. 3 logela, 2 bainugela eta egongela. 450 euro. ☎600 418207 (Mertxe).

**BERTIZARANA.** Baserria errentan emateko, baratzerako sarbidea-rekin. ☎678 957094.

**IRUÑEA.** Pisua errentan emateko. 4 gela, argitsua, igogailua, kalefakzio zentrala. ☎662 376520.

**ALMUÑECAR.** Granadako kostalde tropikalean partikular batek bi pertsonentzako apart-hotela errentan ematen du. Hondartzako lehen lerroan, ongi ekipatua, terraza, bista ederrak, klimatizatua, igerilekuak. Irailerako eskuragarri. ☎658 943702.

**IRURITA.** Etxea errentan emateko. 3 logela eta garajearekin. ☎659 764375.

**ETXEBIZITZAK**

errentan hartu

**BAZTAN ALDEA.** Baserri bat errentan hartuko nuke. Baratzea edo

lur eremu ttiki batekin. ☎626 263011.

**GARAJEAK/LOKALAK**

erosi

**LEITZA.** Bajera bat erosiko nuke Manuel Lasarte kalean edota herrian bertan. ☎606 273534.

**GARAJEAK/LOKALAK**

salgai

**LESAKA.** Eltzetako plaza lur azpiko garajea salgai. ☎646 774117.

**GARAJEAK/LOKALAK**

errentan emateko

**ELIZONDO.** 100 m<sup>2</sup>ko lokala errentan emateko, osorik edo zatika. ☎626 021643.

**LESAKA.** Eltzetako plaza lur azpiko garajea errentan emateko. 20 euro hilabetean. ☎629 480624.

**LANA**

eskaintzak

**BERA.** Auzoa ostatuan, zerbitzaria behar da neguan asteburuetan lan egiteko. ☎948 631584.

**IRUÑEA.** Familia ugari batekin lan egiteko lagun bat behar da. Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Esperientziarekin eta konfidantzazkoa. ☎646 268472.

**ULTZAMA.** Ultzamako Bentan zerbitzaria behar da. Lan finkoa. ☎948 305128.

**ZUGARRAMURDI.** Altzatenea jatetxean sukaldaria laguntzaile behar da. Urte osorako lana. Esperientzia pixka bat duena. ☎948 599187.

**BERA.** Ostatu batean egun erdiz lan egiteko zerbitzaria behar da. ☎948 631271.

**IBARDIN.** Beola Bentan egunero dendan lan egiteko jendea behar dugu. Frantsesa jakitea nahitaezkoa da. ☎948 630709.

**LANA**

eskariak

**BIDASOALDEA.** Orduka lan egiteko prest: garbiketa lanak (portalak, negozioak...), pertsona helduak eta haurrak zaintzeko... ☎602 473794.

**Emakumea** garbiketa lanak egiteko edota haurrak edo pertsona helduak zaintzeko prest dago. ☎673 372938.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**  
(irailaren 12tik 19ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 41 € (=)

**Zerri gizena**  
1,358 € kiloak. (=)

**Zerramak:**  
0,690 € Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,22

**1.koa** 4,02

**2.koa** 3,84

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,32

**1.koa** 4,06

**2.koa** 3,89

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**

urruxak 120,00

idixkoak 238,00

**Aretze nabarrak:**

urruxak 140,00

idixkoak 160,00

**Zaldikoak:** €/k

Sortuberriak: 3,00/3,10

Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

**Bildotsak:** €/k

6-8 kilokoak: 6,70/7,30

8-10 kilokoak: 5,50/6,20



Haur Hezkuntzako ikasketak dituen **emakume euskaldunak** arratsaldean lan eginen luke, haurrak zaintzen edo edozein lanetan. ☎663 695410.

**Emakumea** lan bila dabil: garbiketa lanak, haur edo adinduak zaintzen... ☎680 781632.

**Emakume euskalduna** lanean ariko litzateke, etxeko lanak egiten, dendetan reponitzen... ☎680 781632.

**ELIZONDO.** Pertsona bat edozein lan egiteko prest dago: baserri lanetan lagundu, adineko pertsonak zaindu, mantentze lanak... ☎618 686388.

Euskal Filologian lizentziatua **Euskarako klaseak** emateko prest, idatzia nahiz ahozkoa, maila guztietan. Deitu konpromisorik gabe. ☎661 772065.

**Emakume euskaldun** batek etxeak garbitzen edo helduak zaintzen lan eginen luke, Beran edo inguruan. ☎666 641166.

Haur Hezkuntzako titulu eta esperientzia duen **neska batek** haurrak zaintzen lan eginen luke Bera edo inguruan. ☎627 609332.

**Mutil euskalduna** edo-

zein lanetan ariko litzateke. Sukaldaria, harkina eta abeltzaina izandakoa. ☎618 095008.

**ZERBITZUAK**  
eskariak

**MALERREKA edo BAZTAN INGURUAN** zeharkako txirula ikasteko klase partikularrak hartuko nituzke. ☎948 920020.

**MOTORRAK**  
salgai

**Suzuki Bandit 600 N** salgai. 2001. urtekoa. Oso egoera onean, 1.900 euro. ☎626 684311.



**ANIMALIAK**  
salgai

Oilagor ehiztari onen **setter zakurkumeak** salgai. ☎618 962653.



**Border Collie arrazako zakurkumeak** salgai. ☎661 767027.

**Asto bat** eta urte beteko bere **astokume** emea salgai. Oso etxe-koak. ☎948 451787.

**ANIMALIAK**  
oparitzeko


**LEITZA.** Lau zakurkume oparitzeko, ama ardi-zakur bikaina. ☎697 321871.

**DENETARIK**  
galdu-aurkituak

Abuztuaren 28an Alkaiagako poligonoan Samsung Galaxy Mini II **telefonoa galdu** nuen, frontoiaren parean. Gomazko funda urdina dauka. Norbaitek aurkitu bazuen, aunitz eskertuko nioke bueltaztea. ☎636 583034.

**DENETARIK**  
salerosketak

Zero Sette markako **trikitixa** salgai, 3 ahotsekoa. ☎619 845859.



**SUNBILLA.** Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287/699 461394.

**ORONOZ.** Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



**IRAGARKIA**  
aldizkarian interneten  
**8EURO**

ttipi-ttapa  
Tel. 948 635 458  
www.ttipi.net



**IGANTZIKO UDALA**

**Arau Subsidiarioen determinazio xehakatueta aldaketa puntuala.**

**Hasierako onespena**

Igantziko Udalak, 2014ko ekainaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen hasiera batean onestea Igantziko Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala (antolamendu xehakatueto determinazioak: hiri lurra arautzen duen 6.5.2.9 artikulua eta lur ez urbanizagarria arautzen dituen 7., 8, 14. eta 15. artikulua).

Espedientea Igantziko Udalak sustatu du ofizioz.

Abenduaren 20ko 35/2002 Legearen 74.1 artikuluan eta ondokoetan ezarritakoari jarraikiz, onspen hori jendarean egonen da hilabetez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, aztertu eta alegazioak aurkez daitez.

Igantzi, 2014.09.05

Alkatea,

M. Lourdes Ibarluzea Irureta

**ttipi-ttapa**

**UDAZKENEKO ESKAINTZA BEREZIAK**

KOSKON TAKO BIDEA | 07 - 1 | LESAKA | 948 635 458  
kulturkari@ttipi.net | www.kulturkari.com | www.ttipi.net

2.500 FLYER A5	↔	143€
5.000 FLYER A5	↔	165€

KOLORETAN | DISEÑUA BARNE | IMPRENTA BARNE | GARRAJA BARNE | BEZA BARNE | EPEA: 10 LAN EGUN

FLYER A5  
Formatua: 148 mm x 210 mm

# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,37€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.net bitartez



Irailaren 18an **INTZA SAGARDIA OIARZABALEK** bi urte bete zituen. Kokortzen ari da gure tikiak! Zorionak eta milaka muxu attatto eta amatxoren partez



Urriaren 5ean Goizuetako **JOSU ALSUA YARZAK** 4 urte beteko ditu. Zorionak pottoko!



Igantziko **ARATZ LAKA MITXELENA** gure etxeko tikiak buruilaren 14an bi urte bete zituen; aunitz urtez eta heldu den urtean ere pastel ona prestatu! Pa!



Aizoaingo **JANIRE REMIREZ PERURENAK** irailaren 29an 10 urte bete ditu. Zorionak aita, ama, Iraia ahizpa eta Iturengo familia guziaren partetik. Hamar muxu haundi-haundi.



**JARE MAIA AROTZENA** lesakarrak 3 urte beteko ditu urriaren 5ean. Zorionak eta hiru muxu haundi aita-ama, atona-amona, osaba-izeba eta lehengusuen partetik.



Lesakako **JARE MAIA AROTZENAK** 3 urte beteko ditu urriaren 5ean. Aunitz urtez eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Arantzako **IRATI LIZARDI ABASOLOK** 5 urte egin ditu irailaren 25ean. Zorionak preioxia!!!



Erratzuko **HARTIZ ITURBURUA JAURENAK** irailaren 14an 9 urte bete ditu. Zorionak Naroa eta Enaitz lehengusuen eta berexiki Iker anaiaren partetik.



Aunitz urtez **USOA!** Hiru hamarkada ez direlako egunero betetzen, ongi pasa zure eguna eta muxu haundi bat!



Goizuetako **JARE IBARRA TABERNAK** urriaren 27an 3 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia guziaren partetik!



**PABLO IRAZOKI OLAIZOLA** sunbildarrak 10 urte beteko ditu urriaren 10ean. Zorionak eta txokolatzeko musu haundi bat atxa eta amaren partetik.



Urdazubiko **PABLO IRAZOKI OLAIZOLAK** urriaren 10ean 10 urte beteko ditu. Zorionak aunitz! Eta egun ona pasa Urdazubiko aitabxi Paulo eta amatxi Maria Luisaren partetik.



Anizko **UNAX ZAMBORANAK** 7 urte beteko ditu urriaren 1ean. Aunitz urtez eta muxu bat familiaren partetik.



Irailaren 21ean, Urrozko **MIKEL URROZ GONZALEZ** 7 urte bete zituen. Zorionak eta aunitz urtez, senide, guraso, osaba eta izebaren partetik.



Igantziko **ENEKO** eta **NAHA ALMANDOZ URBISTONDOK** 3 urte urriaren 2an eta azaroaren 21ean 2 urte beteko dituzte. Zorionak bie familia guziaren partetik.

## Azkenean,

# harpidetza baino merkeagoa da TTIPI TXARTELA



Miren IPARRAGIRRE HUALDE  
72673111-B  
04/2015  
123456



• Aldizkaria doan  
• 44 dendetan deskontuak  
• Hamabostero zozketa izugarriak  
• %25eko desgratuzioa errentaren aitortzean

%10

% 8

% 5

TTIPI-TTAPA

ren urteko kuotak 34 euro balio du.

TTIPI TXARTELA

dutenek, 30 euro pagatuko dute urtearen azkenean,

Errentaren Aitortpenarekin 10 euro itzulliko baitzaie

OPARIAK

ALDIZKARIA

BAZTAN

MALERREKA

BORTZIRIAK

LEITZA

Autak eta biokleta talerak | Auzo eskolak | Argazki-dendak | Arropa-dendak | Bili-dendak | Ertetik Zientzia | Ebeitesak | Kiri-dendak | Haurren gauzen dendak | Lantzerak | Liburu-dendak | Nutritza eta dietetikak | Opatu-dendak | Opatuak | Pormusak | Tindaketa | Zapiak



**berako agenda**

**.net**

Twitter Facebook

**Urria**

Berako agenda

Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 012 telefonan edo [www.berakoagenda.net](http://www.berakoagenda.net)

**4** | **LAGUNBATA**

**"GARAI HURA GARA" IKUSKIZUNA**  
Bertsolaria: Andoni Egana  
Piano-jotzailea: Xabier Lizaso

19:30 · Kultur Etxean  
Sarrera: 6€  
Antolatzailea: Berako Euskara Batzordea  
Laguntzailea: Nafarroako Antzoki Sarea

**15** | **ASTERAKENA**

**DOLUAREN INGURUKO SOLASALDIA**  
17:00 · Beralandetan

**3** | **OSTIRALDIA**

**"BARJATARRIN SIBIRNAK"**  
(Koro Inzoki eta Justina Paul Arrak)  
19:30 · Beralandetan

**25** | **LAGUNBATA**

**LIZUNIAGAKO IGDERA**  
14 urtetik goitikoenzat  
17:00 · Gure Txokoan · 4,9 km  
Bazkideak: 3€ | Ez bazkideak: 5€  
Izen-ematea: [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com)  
Antolatzailea: Gure Txokoa

**10** | **OSTIRALDIA**

**"BIDEPENAK: JULIO CARO BARJAT SOLASAN"**  
Hainbat herritarren testigantza  
19:30 · Beralandetan

**25** | **LAGUNBATA**

**BERA KANTARI**  
19:00  
Ilekuetatik abiatuta

**25** | **LAGUNBATA**

**BARAZKI OPIL LEHIAKETA**  
Eguerdian  
Eskolako frontoian

**25** | **IGANDA**

**KONTZERTUA: BIDE ERTZEAN**  
19:00 · Kultur Etxean  
Sarrera: 6€  
Antolatzailea: Berako Kultur Batzordea  
Laguntzailea: Nafarroako Antzoki Sarea

**26** | **IGANDA**

**LURRAREN EGUNA**  
Eskulangileen azoka, barazkien erakusketa, gasna eta sagardo lehiaketa, kalejira, argazki erakusketa, bertsolariak, dantzariak, berbona...

**25** | **URRIAK**

**BERA ETA DON JULIO**  
(Bona Mari Errodona)  
Labiaga Ikastolan  
ORDUTEGIA:  
Urriak 25: 17:00-21:00  
Urriak 26: Egun osoan

**3** | **URRIAREN**

**MARGOLARI BERATARRIN ERAKUSKETA**  
Berako dendetako erakusleihotetan

**24** | **URRIAREN**

**DON JULIOREN ARRASTOA**  
Kultur Etxean



**2015eko egutegi pertsonalatuak**



*Urte osoan eskuraziteko!*



**Mahai gaineko egutegiak**  
Modelo ugari aukeran  
Trokelatatuak,  
paper edo PVCzkoak...



**Paretan jartzekoak**  
Kontsultatu neurriak  
hilabeteak ilargiekin,  
euskaraz, elebitan...



**Posterrak**  
Neurri handikoak  
A1, A2, A3  
paper lodian



**Sakelekoak**  
55 x 85 mm  
66 x 96 mm  
Izkin borobilduak



Koskontako bidea, 7 | LESAKA | 948 635 458 | [www.kulturkari.com](http://www.kulturkari.com) | [kulturkari@ttipi.net](mailto:kulturkari@ttipi.net)



ttipi txartela

MEN-ERABILGARRIEN HIRLDE  
2007/11-6  
BILBOA  
2010

ttipi  
txartelarekin  
beti irabazten da !

DESKONTUAK, ZOZKETAK...  
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUISUTRUK  
%25eko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koakontako bidea 7 LESAKA  
T: 948 635 468 - F: 948 635 457  
info@ttipi.net  
www.ttipi.net

## ZOZKETAK

622 ALEKO IRABAZLEAK

2 LIBURU | Tarttalo

"Igela beldurrez dago" | Gotzone Rekondo | LESAKA  
"Igela igela da" | Gemma Martiarena | ELIZONDO

MARTIKO LÓTEA | Martiko

M<sup>a</sup> Josefa Gola | BERA

HARPIDETZA HILABETE 1 | Berris egunkaria

M<sup>a</sup> Jesus Sota | LESAKA

2 LIBURU | Elkar

"Nire pobroina maitea" | Isabel Aleman | AMAIUR

"Nire pobroina maitea" | Juanma Molinero | BERA

2 SARRERA | Zugarramardiko Sorginen Lazas

Oskar Txoperena | IGANTZI

2 SARRERA | Aquarium

Marisa Cuartero | BERA

1

KAMISETA BAT  
Onddo ta punto  
[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)



2

2 LAGUNENTZAKO 2NA SARRERA  
Garai Hura Gara ikuskizuna  
<http://www.berakoagenda.net/>

URRIAK 4 | 19:30  
Berako Kultur Etxean



3

2 LIBURU

Mixtxi marriau | Hautsi da katea  
Erein  
[www.erein.eus](http://www.erein.eus)



4

TXANTXARIAK DVDa  
Urtzitxa eskola  
[www.aren.net](http://www.aren.net)



5

2 SARRERA  
Irrisarri Land  
[www.irrisarriand.com](http://www.irrisarriand.com)



6

2 SARRERA  
Donostiako Aquariuma  
[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)



## DESKONTUAK

### IPINGI

ELIZONDO  
%10, 30etik gorako gastuan

### IPARLA kirolak

ELIZONDO  
%8, 30etik gorako gastuan



### ARRATE ESTETIKA ZENTROA

DONEZTEBE | %10 "Skeyndor  
Eternal" krema guztietan



DONEZTEBE  
%10eko deskontua cinetakopetan

### bortzirudi

BERA  
%5, 5etik gora, kopietan,  
enkuadernazioetan eta inprentako  
zenbait lanetan (ezkontza gonbidapenak,  
croitgarriak...). Argibideak dendan

### Kimetz Belardonda

DONEZTEBE | %5 kosmetikan